

hh
hik hasi

Luis Larrañaga 'Pizti'-ri elkarrizketa
Leiho bat euskal kulturari
Zerrendatik fakturara eta e-mailetik
menura
Ergonomia eskolan
'Xapoketan' karta-jokoa
Aitor Mendiluze

142



ESKOLARAKO BIDEA

KATTA

ZURE ABENTURA-LAGUNA



MIREN AGUR MEABE • LOTURA FILMS

elkar

www.elkarargitaletxea.eu

AURKIBIDEA

GAIA / 10

ESKOLARAKO BIDEA

Haurrak eskolara oinez eta euren kabuz joaten al dira? Azken hamarkadetakoa joera ikusirik, gero eta gutxiago, autoek presentzia handia hartu baitute. Horrek haurrengan dituen albo-kalteak eta ondorioak dira aztergai erreportaje honetan. Horren aurrean egin diren hainbat esperientzien berri ere ematen da. Auzoak, herri eta hiriak beste modu batera antolatu beharra ikusten da, haurra eta pertsonak erdigunean jarrita.

ELKARRIZKETA / 18

LUIS LARRAÑAGA 'PIZTI'

Gorputz Hezkuntzako irakaslea izateaz gain, SOHAT Soin Heziketaren Aldeko Taldeko bozeramailea da Luis Larrañaga *Pizti*. Talde horrek Gorputz Hezkuntzako irakasleentzat baliagarri izango den programazioa argitaratu du eta berau aitzakitza hartuta, Gorputz Hezkuntzako eskolen, curriculumaren eta irakasleen osasunaz aritu da elkarrizketan; egoera nola dagoen eta nola izan beharko lukeen denon onurarako.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Mikel Agirrezabala, Ane Aranburu, Ainhoa Azpiroz eta Ainara Gorostitzu.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Joxe Mari Auzmendi, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2019-09-19).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Mugimendua izatea seinala ona denean

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Eskolarako bidea: haurrak eskolara oinez eta euren kabuz

18 ELKARRIZKETA

LUIS LARRAÑAGA 'PIZTI'

"Uste dut denbora gehiago pasatzen dugula atletekin gaitasunak lantzen irakasleekin baino"

26 ESPERIENTZIAK

Leiho bat euskal kulturari

30 EKARPENAK

Zerrendatik fakturara eta e-mailetik menura

36 GALDEIDAZU

CARLOS CASAL

Ergonomia eskolan: ongi esertzen al dira haurrak eskola-orduetan?








39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

'Xapoketan' karta-joko berria

42 ATZEKO ATETIK

Aitor Mendiluze



Mugimendua izatea seinale ona denean

editoriala

IKASTURTE HASIERAK BEREKIN DAKAR MUGIMENDUA, ERA ASKOTAKO MUGIMENDU TXIKIAK. HORIETAKO BATZUEI LUPAZ BEGIRATU ZAIE ZENBAKI HONETAN: IKASLEEN JOAN-ETORRIEKIN ETA JARDUEREKIN LOTUTAKOEI.



Hasi da ikasturte berria, hasi da mugimendua ikastetxeetan, hezkuntza-erakundeetan eta sindikatuetan, jangelan eta eskolaz kanpoko jardueretan. Mugimendua; hori da ikasturte honetako *hik hasiren* lehen zenbakian nabarmendu dena.

Gai nagusian ikasleek eskolarako bidean egiten duten mugimendua aztertu da. Badirudi azken urteetan haurrak eskolara autoz eramateko joera handitu egin dela, eta ondorioz, gero eta gutxiago direla oinez eta euren kabuz joaten direnak. Adituen arabera, jokabide horrek haurrengan gero eta nabarmenagoak diren hu'tsuneak sortu ditu; hala nola, ingurua ezagutzeko zailtasunak, euren kabuz hantxan ibiltzeko arazoak, sedentarismoa, kalean beste haurrekin harremanak izateko ohituren galera eta abar. Hala bada, neurriak hartzeko moduko egoera da, eta horretan hasiak daude hainbat lekutan; erreportajea aipatzen dira Donostian, Oñatin eta Leioan, esate baterako.

Idea argia da: askatasunez eta segurtasunez mugitzeko moduko kaleak behar dituzte haurrak. Autoz bete dira kaleak azken hamarkadetan, eta ondorioz, auzoen, herrien eta hirien egitura eta antolaketa birpentsatzeko beharra etorri da, pertsona erdigunean jarriz.

Gorputz Hezkuntzako irakasgaiak horretan lagundu dezake, elkarrizketa nagusian Luis Larrañaga *Pizti*-k esaten duen norabidea hartzen baldin bada. Gorputz Hezkuntzan esperientzia txarra bizitzen bada, etorkizunean kirola egiteko gogorik ez da izaten. Aldiz, Gorputz Hezkuntzako eskoletan esperientzia positiboak biziz gero, aurrera begira eguneroko bizimoduan jarduera fisikoak egiten jarraitzeko aukera handitu egiten da. Eragin hori ikusita, bistan da Gorputz Hezkuntza ondo lantzeak garrantzia berezia duela.

Horretarako bi ezaugarri behar ditu Gorputz Hezkuntzak. Bata, zer landu jakitea. Hori zehazteko helburuarekin, SOHAT Soin Heziketaren Aldeko Taldeak 36 unitate didaktikoz osatutako programazio bat jarri du guztion eskura. Bigarren ezaugarria curriculumari dagokiona da; alegia, Gorputz Hezkuntzarentzat curriculum berri bat egitea eta berau praktikan eramateko baldintzak ezartzea, besteak beste, Gorputz Hezkuntzaren gutxieneko ordu kopurua igotzea. Zeren, hizkuntzak jakitea eta ezagutza zientifikoa edukitzea garrantzitsuak izan daitezke pertsona baten lan jarduerarako; baina lanaz gandi, eguneroko bizimoduan ariketa fisikoa egitea ere funtsezkoa da, eta hori ez da egun batetik bestera lortzen, landu gabe, besterik gabe, *makiltxo magiko*arekin.

“Ez dago munduan ume bat baino izaki motibatuagorik bizitzarekin”

Ane Ablanedo



IKASTURTE BERRIA HAUR GUTXIAGOREKIN HASI DUTE IKASTETXEEK

Udako oporraldiaren ondoren, ikasturte berriari ekiteko garaia iritsi ohi zaie milaka eta milaka haurri. Berria egunkariaren datuen arabera, Unibertsitatez kanpoko ikasketetan 500.000 ikasle inguruk ekin diote ikasturte berriari. Ikasmila baxuenetan, hala ere, argi sumatzen ari dira jaiotzen beherakada: ikasle gutxiago dituzte, eta gelak ixten ari dira. Eusko Jaurlaritzak, adibidez, kalkulatu du 50 bat gela gutxiago izango dituela aurtien Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan. Iturri berdinek aipatzen dutenez, itxitako gelen ia erdiak 2 urteko ikasleei dagozkie eta beherakada antzekoa da ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan. Ikasleen galera horrekin kezka agertu dute hezkuntzako eragile ugari, ikastetxeetan eragin handia izan baitezake.

ABIAN DIRA HIK HASI-K ESKAINTZEN DITUEN FORMAZIOAK

Hasiak dira jada Hik Hasi egitasmo pedagogikoak ikasturte honetarako prestatu dituen formazioen saioak. Batetik, Haur Hezkuntzako hezitzaileei zuzenduta eskaintzen duen bi urteko formazioaren 6. eta 7. edizioak irailean ekin zioten ikasturte berriari. Psikomotrizitate erlazionalako ikasleek ere lehendabiziko saioa egin dute eta ekainera bitartean, hilero asteburu bat hartuko du formazioak.

MIGRATZAILEEN SEME-ALABENTZAKO EUSKARA PLANA

Euskara gaitasun mugatua ikasketetan arazo ez izateko helburuarekin abiatu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egitasmoa. *Eusle* izena jarri diote eta proiektu pilotua aurtien jarriko dute martxan lau ikastetxetan: Gasteizen, Bilbon eta Eibarren. Bi ikasturteko proba izango da, eta emaitzak ikusi ondoren erabakiko dute plana ikastetxe guztietara zabaldu edo ez.

IRAKASLEEN ORDEZKAPEN SISTEMA BERRIAN AKATSAK

Irakasleek ordezkapenak kudeatzeko sistemak ezinegona sortu du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hezkuntza komunitatean. Dozenaka irakasleek salatu dute arazo ugari eragin dituela Ordezkgune aplikazioak. Hezkuntza Sailak maiatzean abiatu zuen aplikazio telematikoa berria, baina irailean kolapsatu egin da, ikasturte hasierarekin batera kontratazioak eta lan bolumena handitu direnean.

Irakasleek kexuetan kontatzen dutenaren arabera, ordezkapenak egiteko eskaintzak jasota ere, akastunak dira horietako asko: lanpostu bera bizpahiru pertsonari eskainia, existitzen ez den lanpostu bat hautatzeko aukera, hautatutako lanaldiaren eta benetakoaren arteko aldeak eta abar.

ELA eta LAB sindikatuek ere bat egin dute irakasleek agertutako ezinegonarekin eta Hezkuntza Sailaren "aurreikuspen falta" kritikatu dute.

Ordezko irakasleek eta sindikatuek ez ezik, zentroetako arduradunek ere inguruan giro nahasia ikusi dutela aipatu dute.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Cristina Uriartek onartu du orotara berrehun ordezkagai inguruk akatsen ondoriozko arazoak izan dituztela, baina adierazi du horien egoerak onbidean daudela jadanik. Sistema berria jadanik bikain ari dela uste du Hezkuntza sailburuak eta plataforma horrekin lanean jarraitzeko asmoa agertu du.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

IRUÑEKO HAUR-ESKOLA EUSKALDUNAK AURRERA BEGIRAKO ATAKA LAUSOAN



Iruñeko haur-eskolen maiatzeko matrikulazioan bildutako datuen arabera, ez dago soberako plazarik Nafarroako hiriburuko haur eskoletako eskaintza orokorrean. Hizkuntza eredu guztietan, eskaintako lekuen gehiengo handia bete da: % 85,9 euskarazko ereduari, % 90,4 gaztelaniazkoan, eta % 87,6 gaztelania eta ingelesa uztartzen dituzten ereduari. Iruñeko haur eskoletako datuen arabera, beraz, ez dago ezberdintasun nabarmenik hizkuntza ereduaren artean. Datuak datu, bestelakoa da Enrique Maia Iruñeko alkateak pentsatzen duena. Izan ere, euskarazko ereduaren eskaintza “puztuta” zegoela esan du eta hurrengo ikasturtean aldatzeko urratsak hasiko dituela iragarri zuen. Iruñeko Udalak lau haur-eskola ditu euskaraz: Txantrean bakarria dago orain, beste bat Arrotxapean, beste bat Donibanen eta laugarrena Arrosadian.

Aurreko udala osatu zutenek euskararen gaiarekin “obsesioz” ari dela erantzun diote Enrique Maia alkateari. 2016an, haur eskoletan aldaketak egiteaz gain, ikerketa soziologiko bat eskatu zuen Iruñeko Udalak. Maider Beloki orduko Hezkuntza zinegotziaren esanetan, “aldaketen oinarrian datu objektiboak egon behar dira beti”.

‘GAUR ETA BIHARKO HEZKUNTZA ERRONKAK’ HIZPIDE EHIGEN ETA HEIZEN

Iragan den irailaren 26an *Gaur eta biharko hezkuntza erronkak* jardunaldia ospatu zuten Bilbon *Euskal Eskola Publikoa Gaur Bihar* ekimena osatzen duten EHIGE (Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen konfederazioa) eta HEIZE (Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza Elkartearen federazioa) elkarteek. Antolatzaileen arabera, bi atal izan ditu jardunaldiak: Alde batetik, azken hiru urtetan landu duten *Euskal Eskola Publikoa: etorkizunerako proposamen bat* dokumentua aurkeztu zuten. Eta bestetik, arlo sozio-ekonomikoan adituak diren Amelia Barquin irakasleak, Sara de la Rica ekonomilariak eta Javier Echeverria filosofoak hezkuntzaren ikuspegi zabalagoa eskaini zuten.

NAFARROAKO GOBERNU OSAKETA BERRIA ETA SKOLAE

Nafarroako Gobernu osaketa berriarekin batera, hezkuntza arloan ere zenbait moldaketa sumatu dira azken asteotan. Skolae hezkidetzaren programako arduradun nagusi Pilar Mayo kargugabetua izan da eta programa diseinatu duten adituetako batzuk egitasmoa utzi egin dute.

Carlos Gimeno Hezkuntza kontseilariak uxatu egin nahi izan ditu Skolae hezkidetzaren programaren inguruan sortutako zalantza guztiak. Azaldu duenez, “programa ez da gelditu. Proiektu pilotua eta ezarpena eginda, beste fase batean sartuko da orain: orokortzearena”. Hartara, programa “diru publikoarekin finantzaturako ikastetxe guztietara” zabalduko dutela ziurtatu du.

Unescok Skolaeri iaz emandako saria, berriz, Maria Txibite lehendakariak jasoko du. Joan den ikasturtearen bukaeran iragarri zuen Unesco erakundeak Skolae programak irabazi zuela Nesken eta Emakumeen Hezkuntzarako Nazioarteko Saria. Urriaren 11n emango dute saria Parisen egingo duten ekitaldian eta gobernuko kontseilariak iragarritakoaren arabera, sari banaketan ez dira programaren sortzaileak izango. Maria Txibite lehendakariak jasoko du. Gimenoaren hitzetan, “programari aitortza eta babesa adierazteko modu bat da lehendakariak berak saria jasotzea”.

Ez da amaitu, hala ere, Skolaeren inguruko auzia auzitegietan. Programa landu zuten bi adituk epailearen aurrean deklaratu beharko dute berriz ere, urriaren 9an, guraso talde baten salaketa tarteko.



'LOTURAREN BALIOA' JORRATUKO DUTE LUZARO PSIKOMOTRIZITATE ESKOLAREN JARDUNALDIETAN

Azaroaren 29an, 30ean eta abenduaren 1ean egingo dira Luzaro Psikomotritate-Eskolaren XIV. Jardunaldiak. Aurten jorratuko duten gaia *Loturaren balioa* izango da, gaur egungo hezkuntza-testuinguruan oinarri-oinarrizkoa den gaia, antolatzaileen arabera. Izan ere, haurra osasuntsu garatuko bada, ezinbestekoa zaio atxikimendu segurua eraikitzea, eta, halaber, atxikimendu segurua eraiki ahal izateko, funtsezkoa da helduaren eta hauraren artean ezartzen den lotura.



Dagoeneko irekita dago jardunaldietan izena emateko epea, eta Luzaro Psikomotritate-Eskolaren webgunearen bidez egin daiteke. Informazio gehiago eskura daiteke www.luzaro.net webgunean.

ABIAN DA ELHUYAR ZIENTZIA-AZOKA

Ikasturte berriarekin batera, martxan da Elhuyar Zientzia-Azoka eta dagoeneko irekita dago izen-ematea. Zientzia-Azoka Elhuyarren ekimena da eta Euskal Herriko gazteek garatutako proiektuen azoka da. Ekimenaren bidez gazteek ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoa barrutik bititzea sustatu nahi da, gazteengan alor horiekiko interesa eta motibazioa piztearekin batera.



Zientzia-Azokan parte hartuz gazteek sariak eskura ditzakete eta dagoeneko irekita dago izen-ematea. 12-18 urte bitarteko gaztetxoek izango dute horretarako aukera eta 2-4 kideko talde txikitik ikerketa-proiektu bat edo teknologia-proiektu bat diseinatu eta garatuko dute.

IKASTURTE BERRIKO HEZKUNTZA-ARLOKO JAIEGUN NAGUSIAK FINKATUTA

Ikasturte berrirako hainbat ikastetxeen aldeko Euskal Herri mailako jaiegun nagusi gehienak finkatuta daude dagoeneko. Hurrenez hurren honakoak izango dira datak: urriaren 6an Kilo-metroak jaia ospatuko dute Zarautzen, *Ni, hi, hura, ikastola mundura*, lelopean. Bi aste geroago, urriaren 20an, Erriberaraino joango da ikastolen aldeko aldarria. *Izan Argi!* lemarekin Tuterako Argia ikastolari laguntzeko jaia izango da.

Maiatzean hiru jai nagusi egingo dira: maiatzaren 10ean egingo da Herri Urrats Senperen, maiatzaren 24an Sortzenen Jaia Iruñean ospatuko da ohi bezala eta hilabetea ixteko, maiatzaren 31n Ibilaldia ospatuko da Elorrion, *Hel horri* lelopean.

Ekainean ere eragileak batzeko hitzordu bat baino gehiago izango da: ekainaren 7an egingo dute Bastidan Eskola Publikoaren aldeko jaia, eta ekainaren 14an bi zita izango dira; bata Aizarnako eskola txikiak prestatutako Eskola Txikien eguna, eta Amurrion ospatuko den Araba Euskaraz jaia bestea. Azken horiek *Daraba gu* leloa aukeratu dute aurtengo festarako.



HIZPIDE IZANGO DA

EUSKAL KULTUR SORKUNTZAREN TRANSMISIOAN ERAGITEKO JARDUNALDIAK EGINGO DIRA AZPEITIAN

Euskal kultur sorkuntzaren transmisioa hizpide izango dute urriaren 19an Azpeitian egingo diren jardunaldietan. *Sormenean hezi, kulturari bizi*, izenburupean, egungo kultur bitartekaritzaz hitz egingo da, beti ere euskal kultur sorkuntzaren transmisioa egituratzea eta sendotzea helburu hartuta.

Lehendabiziko edizio honetan hezkuntza-arautuan jarriko da arreta eta hainbat hitzaldi eta mahai-inguru antolatu dituzte horretarako. Amaia Serrano EHUko ikertzaile eta irakasleak gidatuko ditu goizeko lehen zatiko hitzaldiak. Elkar taldeko Olatz Osak kultur transmisioaren inguruko hitzaldia eskainiko du, hasteko, eta Iratxe Retolaza EHUko ikertzaile eta irakasleak kultura eta hezkuntza uztartuko ditu bere hitzaldian, ondoren. Goizeko bigarren zatian kulturgintzaren transmisioan ari diren esperientziak ezagutzeko aukera izango da. Gotzon Barandiaran idazle eta Jalgiko kideak dinamizatuko ditu saioak eta honako esperientziak ezagutzeko dira eragileen beraien eskutik: Arte eszenikoak Pantxika Telleria koreografoaren eskutik; *Musikariak Ikastetxeetan* programa Alberto Barandiaran kazetariak azalduta; *Eskolako Literatur Kanona* egitasmoa Amaia Irazustarekin; eta Artaziak egitasmoa.

Bazkalostean, lehenengo zatian, *Kultur transmisioa hezkuntza arautuan* izenburupean mahai-ingurua egingo da. Ainara Gorostitzu Hik Hasiko kideak gidatuko du saioa eta hezkuntza arloko hainbat eragilek parte hartuko dute. Bigarren zatian, berriz, *Kultur-hezkuntza eskolan gogoetagai* izango da hizpide eta mahai-ingurua osatuko dute hainbat arlotako eragileek. Itxierako saioan, Dinamoa sormen-gunea ezagutzeko bisita gidatua eskainiko du Kulturaz Kooperatibak.

Sormenean hezi, Kulturari bizi jardunaldiak.

- **Data:** Urriak 19, larunbata.
- **Tokia:** Azpeitiko Basozabal Jauregia.
- **Izen-ematea:** www.ueu.eus webgunean.



'TXIKITAKO BELDURRAK' HIZPIDE HIK HASI-REN UDAZKENEKO JARDUNALDIETAN



Hik Hasik antolatzen dituen Haur Hezkuntzako hezitzaileentzako Udazkeneko jardunaldiak azaroaren 15ean Bilbon eta 16an Donostian izango dira. Aurten landuko den gaia *Txikitako beldurrak* izango da eta hizlarien artean izango dira Myrtha Chokler, Jon Arana eta Katty Homar psikomotrizistak eta Alexander Barandiaran MUko irakaslea. Informazio gehiago eta izen-ematea www.hikhasi.eus-en.

IRAKASLEENTZAKO GITARRA ESKOLAK, XIRULA MIRULAREN ESKUTIK

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzako XI. gitarra ikastaroa izango da eta musika tresna honetaz deus ez dakitenei zuzenduta dago. Saioak asteartetan izango dira 19:00etatik 20:30era, urriaren 15ean hasita. Informazio gehiagorako: 943 463 555 telefonoan (17:00-19:00 bitartean) edo xirula@euskalnet.net helbidean.



Hiriek, herriek eta auzoek bere osotasunean irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako baliabide agortezinak gordetzen dituzte beren barnean. Baina gure auzoetako kaleek aldaketa ugari bizi izan dituzte azken hamarkadetan eta gure joan-etorriak ere ez dira garai batekoak bezalakoak. Haurrek eskolara egiten duten bidean jarri da atentzioa erreportaje honetan, baina, datozen lerroetan bidezidor asko gurutzatuko dira, Isabel Prieto mugikortasunean adituaren arabera eskolarakoa ez delako haurrek beraien egunerokoan hirian, herrian edo auzoan egiten duten joan-etorri bakarra.

GAIA: ESKOLARAKO BIDEA

Haurrak eskolara oinez eta euren kabuz

Azken hamarkadetan asko aldatu dira hirian, herrietan eta auzoetan leku batetik bestera mugitzeko ohiturak. Joerak zenbateraino aldatu diren ikusteko hurbileko ikastetxe baten atarira joan besterik ez dago sarrera edo irteerako momenturen batean. Duela ez hainbeste urte arte, haurrak eskolara oinez eta nagusien laguntzarik gabe joaten ziren arren, azken urteotan gutxi batzuen lekualdatzeko modua bilakatu da. Adituen arabera, jokabide horrek haurrengan gero eta nabarmenagoak diren hutsuneak sortu ditu, hala nola, ingurua ezagutzeko zailtasunak, beren kabuz han-hemenka ibiltzeko arazoak, sedentarismoa, kalean beste hurrekin harremanak izateko ohituren galera eta abar. Aldaketa hori, gainera, gure errepideetako zirkulazioaren areagotzean eragina duen beste arazoietako bat da. Autoek eta abiadurak hartu dituzte kaleak, eta gero eta gehiago dira hiriak herritar askori –horien artean haurrak– bizkarra emanda garatu direla dioten ahotsak.

Helduak pentsatzen ditu hiriak, baina haurrak ez du helduak bezala hautematen kalea. Francesco Tonucci pedagogogo eta marrazkilari italiarraren ustez, “oso garrantzitsua da haurrak lehen urtetatik bakarrik irten ahal izatea kalera. Etxeko segurtasuna atzean uztearen plazera bizitzeak eta arriskuaren bizipenak berebiziko garrantzia dute haurra-

ren hazkundera eta garapenera; kalera jaitsi, lagun bat bilatu, ados jarri zein jolasetan eta nola ibiliko diren; edo naturarekin esperimentatuko duten, edo objektuekin; eta elkarrekin hitz egingo dute, helduei buruz edo nahi duten horri buruz; elkarrekin aurre egingo diete euren neurriko arriskuei, zailtasunak gaindituko dituzte, eta arazoak konponduko; etxera nekaturik iritsiko dira, agian zikinak, kitzikatuak, eta bizi izan dutena gurasoei kontatzeko gogo izugarriekin”.

Isabel Prieto de Blas mugikortasunean adituarentzako ere hiria “tresna gisa” ulertu izan dugu azken hamarkadetan eta modu horretan joan dira hazten gure auzoak: “Hamarkadetan logika hori nagusi izateak ekarri dizkigu orain sufritzen ari garen ondorioak. Kotxez bete dira kaleak, eta hori dela eta auzoak, herriak eta hiriak birpentsatu beharra etorri da, berriro pertsona erdigunean jartzeko”.

Testuinguru horretan loratu dira hainbat herrietan eta hirietan haurrak eskolara oinez eta beren kabuz joateko egitasmoak. Donostian duela 16 urte ekin zioten *Eskola Bidea* proiektuari. Egitasmo hau European arrakasta izan duten hainbat esperientzietan oinarritzen da eta gaur egun, Europako beste bost hirirekin lan egiten dute, Civitas-Arquimedes ekimenaren baitan. Proiektuaren sustatzailea izan

GAIA: ESKOLARAKO BIDEA

Haurrak eskolara oinez eta euren kabuz

zen Prieto eta, gaur egun ere, mugikortasun-eredu horren alde lanean dihardu Donostiako Udalararen Mugikortasun Sailean. Aholkulari lanetan ere aritzen da, eta urte hauetan harremana izan du hainbat udalekin, ikastetxeekin, edota mugikortasun-gaiak lantzen dituzten eragileekin. Kontatzen duenez, “proiektua aitzakia bat izan da beste hiri eredu baterantz lerrokatzeko. Azken finean, gure hiria bizileku atseginagoa bilakatzea da helburua, haurrentzako auzo seguruagoa, helduentzako ere halakoxea izango delako”.

Eskola Bidea proiektua abian jartzeko, Tonucciren proposamenari heldu ziotela aipatzen du. Tonuccik *La città dei bambini (Haurren hiria)* liburuan hiria pentsatzeko beste politika bat proposatu zuen 90eko hamarkadan, haurrari entzun eta berau erdigunean jarriko zuen hiri-eredu bat. Pedagogo italiarrak defendatzen duenez, “haurrek eskolara patrikak altxor txikiz beteta dituztela joan beharko lukete, eta hortik abiatuta dakitena atera, ikasgelan horren gainean lan egiteko”. Patrikak altxorrez betetzeko, ordea, askatasunez eta segurtasunez mugitzeko moduko kaleak behar dituzte haurrek. Askotan, hirian zehar barreiatu-riko guneetan pasatzen dute eguna umeek; gune batetik bestera, eta etxetik gune horietara euren kabuz joateko aukerarik gabe.

Prietorentzat, “Tonucciren *Haurren Hiria* proiektua magikoa da, ez da utopikoa; aitzitik, benetakoa da. Guk helburu horiek ditugu proiektuan abiapuntu, baina Mugikortasun Sailean eskura ditugun tresnekin joan gara osatzen Donostian garatu dugun proiektua. Zentzu horretan, Mugikortasun Sailetik bi ardatzetan oinarrituta osatu dugu Tonucciren proposamena: azpiegitura aldaketak eginez, batetik, eta zigorrak aplikatuz, bestetik. Nahiago genuke



azken hori egin beharko ez bagenu, baina beharrezkoa dela uste dugu, jarrera batzuek ez dutelako batera laguntzen”.

Urte hauetan zehar Donostiako ikastetxeekin egin dute *Eskola Bidea* proiektuaren lanketa. Azaltzen duenez, “nahiz eta *Eskola Bidea* izena eduki, ez da eskolara bakarrik zuzentzen den proiektu bat. Eskola gonbidatuta dago, jakina, baina hiri-proiektu bat da horren atzean dagoena. Horregatik saiatzen gara proiektua eskola inguratzen duen komunitatearekin adosten eta aurrera eramaten”. 16 urte hauetan hamaika esperientzia izan dituztela dio, batzuekin gehiago asmatu dutela, eta beste batzuekin gutxiago, baina beti aurrera egin dutela. Altxa auzoko esperientzia aipatzen du arrakastatsuen artean: “2005ean hasi ginen auzotarrekin proiektua lantzen, eta egia esan, topografiko-ki auzoak zailtasun dezente zituen mugikortasun-ikus-puntutik. Proiektua auzoan martxan jartzea lortu genuen, auzoko hiru eskoletan, auzo elkarteak inplikatu zen, Haur Txokoa, Gaztelekua, Kultur Etxea, dendarien elkarteak, emakumeena. Eskolara joateko bideak markatu genituen, zebra-bideak hobetu, espaloiak zabaldu, autobusen maiztasunak aztertu... Oinbasa ere Altzan sortu zen esperientzia pilotu bezala, ondoren inguruko hainbat herritara zabaldu dena. Oso mugimendu bizia eta arrakastatsua izan zen, eta auzokideei esker gertatu zen hori”.

Haurren ibilbideak

Teknikariak kontatzen duenez, urratsez urrats joaten dira prozesua garatzen: “Ikastetxearen testuinguruan, lan-talde bat osatzen dugu. Saiatzen gara elkartzeko maiztasun bat finkatzen eta mugikortasunari lotutako gaiez hitz egiten dugu. Ikastetxe inguruko arazo nagusiak elkarlanean aztertzen ditugu, hala nola, sarbideena, segurtasunarena eta gure eguneroko joan-etorrien ohiturena. Haurren ibilbideak detektatzen ditugu, jakiteko lehenengo eta behin nola eta nondik etortzen diren haurrak ikastetxe jakin horretara. Modu horretan, eskolarako bidearen argazkiak beti hartzen du armiarma-sare baten itxura, ez dagoelako ibilbide bakar bat”. Izan ere, eskolarako bidea ez baita haurrak etxetik eskolara egiten duen bidea bakarrik. Arratsaldean haurra eskolatik atera eta, beharbada, kiroldegira joango da, edo gaztelekura, edo liburutegira. Horregatik azpimarratzen du Prietok hiria bere osotasunean: “*Eskola Bidea* proiektuaren baitan ulertzen ditugu haurrek hirian zehar mugitzeko erabiltzen dituzten bideak”.

Proiektuari jarraipena egitearekin batera hasten dira dinamikak diseinatzen, eta argi dute, teknikariaren hitzetan, horiek tokian tokiko komunitatearekin batera eramán

GAIA: ESKOLARAKO BIDEA



behar dituztela aurrera: “Esate baterako, oinatzak marraztu genituen hainbat auzotan haurrek gehien erabiltzen zituzten ibilbideak auzotarrek ere identifikatzeko. Edota pegatina batzuk diseinatu genituen *Eskola Bidea* proiektua identifikatzeko helburuarekin. Tokian tokiko haurrek beraien auzoko dendariekin harremana egin zuten, proiektua azaldu zieten, eta saltokietan jarri zituzten pegatinak. Ekintza horrek dendariak ere proiektuan inplikatu zituen, eta pegatina hori komunitate horrek ere haurrak zaintzen dituenaren adierazle gisa erabili izan da”.

Helduen beldurrak eta kezak

Haurrak beren kabuz hirian edo herrian ibiltzeak, eta bereziki, kalean aske jolasteak onurak dituela jakinagatik ere, helduengan beldurra nagusitzen da haurrak kalean bakarrik uztean. Prietorentzat norabide honetan aurrera egiteko beharrezkoa da helduen beldurrak eta kezak ondo bideratzea. Zentzu horretan, badira bi urte Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultatearekin elkarlanean gaia lantzen ari direla, eta ikerketatik ateratzen ari diren emaitzen arabera, “askotan erosotasuna da beldurraren atzean dagoena, modu inkontzientean bada ere. Gure buruan modu inkontzientean eraikitzen diren jarrerak, gure egunerokoa errazago, azkarrago eta erosoago egitea bilatzen dute. Horrela sentitzen dugu, baina hori aitortu beharrean maiz haurra eskolara bakarrik joateak beldurra ematen digula esaten dugu. Eta 7, 8, 9 urtetik aurrera, hau-

rra gai da prozesu horri ekiteko. Gogorra da horrela esatea, baina askotan ez diegu uzten, komeni ez zaigulako”. Haurrak eskolarako bidea beren kabuz egiteko “prozesua bizitzearen beharra” aldarrikatzen du: “Inork ez du ikasi zapaten lokarriak lotzen egun batetik bestera. Prozesu sinplea izan daiteke, baina egin beharrekkoa. *Eskola Bidea*-ren kasuan ere berdina gertatzen da. Eta Lehen Hezkuntzako garaian ez badiegu uzten, oraindik txikiak ikusten ditugulako edo euria egiten duen egunetan ez bustitzeko kotxez eramaten ditugulako, Bigarren Hezkuntzara pasatzean, jada ez dute nahiko gurasoek laguntzea. Baina bidean galdu dute autonomia eta ardura lantzeko prozesua egiteko aukera, bai haurrek eta baita gurasoek ere”.

Haurrak auzoan beren kabuz jolasean ikusteko, eta hiriak berriro bizileku —topaleku eta jolasleku— bilakatzeko, bestelako mugikortasun-eredu baten aldeko kontzientzia hartzen jarraitzea beharrezkoa da Prietoren iritziz. Tonucik ere haurra ezartzen du kaleen segurtasunaren berme: “Haurrak kalean jolasean dabiltzanean, eurak bakarrik oinez ibil daitezkeenean, hiriak osasuntsu daudela esan nahi du; kalean ez baldin bada haurrik ikusten, berriz, kontrakoa: hiri hori gaixo dago”. Mugikortasuneko teknikaria ere bat dator ideia horrekin. “Haurrei auzoan autonomiaz eta arduraz mugitzen uzten badiegu, eta hori gure hirian posible dela ikusten badugu, horrek aditzera emango digu bide egokia hartu dugula, edo bestenaz, oraindik hobetu beharrean aurkitzen garela ikusiko dugu”.

GAIA: ESKOLARAKO BIDEA

Haurrak eskolara oinez eta euren kabuz

‘Eskola Bidea’ Esperientzia

Donostian *Eskola Bidearen* inguruan egindako 16 urteko ibilian hamaika ekimen garatu dituzte eta badira urte batzuk egitasmoak beste jauzi bat egin duela. 2016an *Eskola Bidea Esperientzia* jarri zuten abian Udaleko Mugikortasun Sailak eta Ostargi gizarte elkarteak elkarlanean. Begirada berri bat bilatzea zen asmoa, proiektuan protagonista zirenen begiradan jartzea fokua. Francesco Tonuccik esana da, “haurra erdigunean jarriko duen hiri-eredu bat pentsatzeko garaian, lehen egitekoa haiei ahotsa eman eta entzutea da”. Ildo horretan, 2016an Intxaurren ekin zioten ibilbideari, Aieteko eta Amarako esperientziak batu zaizkie ondorengo urteetan. Oscar Sanz Ostargiko kideak azaltzen duenez, “ordura arte, hainbat proiektu gauzatu ziren, haurrak eskolara oinez eta beraien kabuz joatea sustatzeko dinamikak. Hala nola, oinezkoen taldeak antolatzea, bide seguru bat bermatzea, Oinbusa, kaleko arauak lantzea, haurren ibilbideak identifikatu eta ikusgai jartzea... Gehienbat helduen ikuspegitik diseinatu dira egitasmo horiek, eta *Eskola Bidea Esperientzia*-ren bidez haurren sentsazio eta beharretan jarri nahi izan da atentzioa. Haurrak prozesuan protagonistak izatea nahi genuen, hasieratik bertatik parte aktiboa senti zitezen”.

Ez baita sentsazio berdina bizitzen eskolara lagunekin joatean, neba-arrebekin, gurasoekin, autoan, bizikletaz, oinez edota euria egiten duen egunetan. “Sentsazio horiek guztiak jasotzen joan gara eta horrekin guztiarekin konektatzen”, dio Sanzek, eta honakoa gaineratzen du: “Prozesu bat bezala ulertzen dugu *Eskola Bidea Esperientzia*, eta aurretiazko diskurtso bat ezarri gabe aritu gara lanean. Lehenengo eta behin, elkar-entzutea izan da gakoa, elkarrekin konektatu eta jakin nola bizi duten hurrek etxetik eskolarako bidea”.

Elkar-entzute horretatik hainbat bizipen jaso dituzte haurren eskutik: “Hurrek ez zuten bide bakar bat iradokitzen; oinez, bizikletaz edo hobeto patinetz. Ez zegoen hobia zen biderik, baizik eta bide asko zeuden. Eta interesgarria izan zen beraientzako ere horren kontzientzia hartzea eta elkarrekin sentsazioak partekatzea”. Momentu eta bizipen asko aipatu zituzten hurrek: “Gurasoekin kotxean joatean, beren gustuko musika jarri eta aitak edo amak ero moduan abesten zuen momentu hori gustuko zuela aipatzen zuen batek, goizetan gurasoen erritmoa



jarraitu beharrek eta arreba txikiak oinetakoak jantzi arte itzaroteko momentuak estresa sortzen ziola beste batek, lagunekin joatean eta helduek entzun gabe nahi zutenari buruz hitz egiten zuten momentua azpimarratzen zuen beste batek, edota gurasoekin bizikletaz joaten ikasi eta eskolatik urrutien bizi zen haurra bizikletarekin bere kabuz nola joaten zen kontatzen zuenik ere bazen. Bazeuden, baita ere, eskolara bakarrik joan nahi zuten haurrak, baina ezin zutenak, gurasoek artean ez zitelako baimentzen. Batek aipatzen zuen bakarrik aurrerago joango zela esaten ziotela, baina haurrak aipatzen zuen berak bakarrik joan nahi zuela orduantxe, emozio edo bizipen hori bizi nahi zuela; bazekielako aurrerago ez zela berdina izango. Era berean, bazeuden bakarrik joan nahi ez zuten haur batzuk ere. Edota zenbait familiatan eskolara joateko momentu hori gurasoekin beraien gauzez hitz egiteko baliatzen zutenak, egunean zehar ez zeukatelako beharbada horretarako beste espaziorik”.

Batez ere, 3. 4. eta 5. mailako hurrekin garatu dute *Eskola Bidea Esperientzia* Intxaurren, Aiete eta Amarako ikastetxeetan. Ostargiko kide den Saioa Aginakok kontatzen duenez, “hazte-prozesuaren baitan, aldi hau oso garrantzitsua zela deskubritzen joan gara. Gurasoek konfiantza transferitzen duten garaia izan ohi da eta hurrek beraien autonomian urrats esanguratsuak ematen dituztena. Momentu hori klabea da auzoa lagunekin esploratzeko. Hala eta guztiz ere, etapa honetan guraso guztiek ez diote ematen autonomia hori euren seme-alabei”. Horregatik, interesgarria ikusi zuten haurren begirada gurasoekin

GAIA: ESKOLARAKO BIDEA

partekatzea eta modu horretan hasi zuten lanketa haiekin. “Intxaurrendoko lehenengo esperientzia hartatik jasotzen joan ginenetik ikusi genuen gurasoengana iristea garrantzitsua zela. Bagenekien ez zela erraza izango, beraien egunerokoan tarte bat egitea eskatzen zuelako. Baina hala ere, saiatu egin ginen eta esan dezakegu Aieten eta Amaran lortu dugula hainbat dinamiken bidez gurasoekin ere lanketak egitea”, aipatzen du Aginakok.

Auzotarren inplikazioa

Eskola bide seguru bat lortzeko, baina, auzoaren inplikazioak ere asko lagundu dezake. Horregatik, garbi izan dute Ostargikoek hasieratik komunitate ikuspegi batetik lan egin behar zutela, auzoka. “Haurrek eskolara egiten duten bidearekin konektatzean, beldurrak, sumatzen dituzten babesguneak, distrazioak edota arreta deitzen dieten elementuak atera dira. Kontakizun horiek, dinamika ezberdinen bidez, auzotarrekin partekatzen saiatu gara”, dio Sanzek. Modu horretan, auzoetako kultur etxeetan erakusketak egin dituzte, ginkanak, panelak sortu eta ikusgai jarri edota Amarako kasuan etxerik gabekoen harrera gunean tailerrak egin dituzte. Gaineratzen dutenez, “proiektuaren izaera komunitario horregatik, auzoko ikastetxeetako ordezkariak biltzen dituen espazio bat sortzea izan da abiapuntua, eta guztien artean, mugikortasunak ukitzen dituen gaiez hitz egitea, eta, batez ere, elkar entzutea”.

Izan ere, ikastetxeak ere protagonista nagusiak izan dira prozesu honetan zehar. Ostargiko kideen esanetan, “ikastetxeen aldetik ez zegoen eskari konkretu eta komun bat, baina esan dezakegu bazegoela mugikortasunaren arloan

hausnartzeko gogoia. Ikastetxe batzuk oso inplikaturatu ikusi ditugu eta poztekoa izan da hori. *Eskola Bidea Esperientzia*-ren bidez gai asko atera dira mahai gainera, eta hainbat irakaslek aukera horiek baliatu dituzte ikasturtean zehar zenbait gaitan sakontzen joateko”.

Aldi berean, mugikortasun-jasangarria errazteko soluzio urbanoak bilatu beharraz ere mintzo dira Ostargikoak. “Ezin da urtero eskola barruan autoen aparkalekuari gero eta espazio handiagoa gehitzen aritu. Jakina, hor kontrastan zeuden, eta apustuak ere bai; momentu oso konpetitibo batean, ikastetxearen ondoan errazago apartatu ahal izatea erakargarria izan daiteke beste zentroen aldean, edota alderantziz”.

Ingurumari horretan Aginakok denbora aipatzen du soluzio bide bezala: “Eskoletako sarbideetan aldaketa esanguratsuak hautematen hasteko, denbora behar duten prozesuak aurrera eramaten jarraitu beharra dago. Bizimodua errazago egiteko zenbait ohitura hartu ditugu, baina kontuan izan behar dugu ohitura horiek eragina dutela gure seme-alaben ohituretan. Hori aldatzeko gehiago hausnartu behar dugu, denbora gehiago eskaini gaiari eta kotxea hartu baino lehen apur bat pentsatu”.

Isabel Prietok ere bat egiten du ideia horrekin: “Beharrezkoa da gelditzea, pentsatzea, galdetzea zer nahi duten guraso bezala, zer den haurrek nahi dutena, elkar entzutea, eta erabakitzea zer aldatzeko prest gauden eta zer ez. Egia da bizi garen gizarte honek ez duela asko laguntzen, baina beharrezkoa da gelditzea eta hausnartzea. Haurrek eskertuko dute eta bide batez, hiririari, herriari edo auzoari mesede handia egingo diogu”.



Esperientzia berriak loratzen

Eskolarako bidea mugikortasun-jasangarriago baten norabidean lerrotatu asmoz, hainbat proiektu abiatu dira gure lurraldearen hamaika hiri eta herrietan. Oñatin, esaterako, *Bagabiltz-Eskola Bidea* izenarekin hasi zuten duela sei urte hurrek eskolarako bidea modu jasangarriagoan egitea sustatzeko proiektua. Udalaren Hezkuntza Sailak eta Oñatiko ikastetxeek elkarlanean gidatzen dute egitasmoa eta bi ardatz nagusi dituzte jomugan: batetik, ikastetxerako joan-etorrietan mugikortasun aktiboagoa, jasangarria eta segurua sustatzea; eta, aldi berean, eragileen artean elkarlana, partaidetza-, hausnarketa- eta eraldaketa-prozesu bat suspertu nahi dute.

Bagabiltz-en sei urte hauetan hamaika ekimen egin dituzte, hala nola: joan-etorrien inguruko datu-bilketak, haurrak bidean elkartzeko Juntalekuen egitasmoa, argazki lehiaketak, espazio publikoaren gaineko azterketak, ikastetxe ondoko ibilgailuen espazioak urtean egun batez hurrei eskaintzea etab. Iaz, ekimenaren 5. urteurrenaren harira, *Eskola Bidea*-ren inguruko jardunaldiak egin zituzten herrian bertan. Jardunaldien bidez esperientzia eredugarriak ezagutzeko aukera izan zuten eta Oñatin egindako lana baloreari jarri zuten. Iñaki Akizu Udaleko Hezkuntza eta Euskara teknikariaren arabera, “*Bagabiltz*-en ibilian ikastetxeak oso inplikaturik ikusi ditugu eta herritarrengandik ere balorazio oso onak jaso ditugu”. Aipatzen duenez, Oñatin ere eskolarako joan-etorriak motordun ibilgailuetan egiteko ohiturak indar handia du eta joera hori aldatzeko lanean jarraitu beharaz mintzo da, “pixkanaka espazio publikoa pertsonentzat berreskuratzeko”.

Leioan *Bizibideak* izenarekin egin da ezagun egitasmoa eta herriko hainbat eragilek parte hartzen dute talde eragilean: ikastetxeek, Udalak, osasun zentroak, udaltzaingoak, Euskal Herriko Unibertsitateak, guraso elkarteak, auzoetako elkarteak... Prozesuaren gidaritza lanetan dabil Solasgune Komunitate eta Ikaskuntza enpresa eta bertako lankide den Ane Aramendiak aipatzen du urtero “erronka” izaten dela prozesua berraktibatzea. Aurten, Haur Ibilarien Topaketa egiten duten bigarren urtea izan da —irailan egin zuten Mugikortasunaren Astearen barnean—, eta jai giroan, herriko ikastetxe guztiak eredu jasangarriago eta aktiboago bateranzko aldarrikapenera batzen dituzte.

Leioan ere duela lau urte hasitako bidea egiten jarraitzen dute eta orain arteko dinamikak aberasteko asmoz, ekimen berri bati ekingo diote ikasturte honetan. Aramendiak aipatzen du, garbi dutela *Bizibideak* proiektua haurrena dela eta beraiek izan behar dutela eragile nagusiak. Ikuspegi horri erantzuteko sortu dute Mugikortasunaren Haurren Behatokia. Hainbat ikastetxetako 6. mailako haurrak biltzen ditu eta ikasturtean zehar hiru alditan elkartzea aurreikusten dute, herriko alkatea lagun dutela.

Osasun zentroekin egiten duten elkarlana ere esanguratsua da Leioako esperientzian. *Metro minuto* dinamikaren bidez, eskolarako bideetan 39 seinale identifikatu dituzte eta batetik bestera dauden distantzia eta minutuak ere bai. Hori guztia gida batean jasota daukate eta pediatrik haurren 10 urteko azterketan familiei banatzen die, ohitura osasuntsuak sustatu asmoz.





Burdin Harana Legazpi - Gipuzkoa



Olentzero ikzakina Mirandaolako Burdinolan.

ABENDUAN OLENTZERO IKAZKINA:
Astean zehar ikasteetxentzat
eta asteburuetan familientzat



Fabrika.



Mirandaolako Burdinola.



Aiton-amonen eskola.

Mirandaolako Burdinola martxan!!

Historian atzera egingo dugu eta Erdi Arotik Industrializaziora Euskal Herrian burdinak izan duen garrantziaz jabetuko gara.

Hiru gune

1 BURDINOLEN IBILBIDEA, XI-XIX MENDERAINO.

Aizkorri-Aratz parke Naturalaren magalean, UR-OLA ibaia jaoitzen da, Burdin Haranaren ardatz nagusia. Bertan olagizonak eta baserritarrak bizi izan dira.

- Artzaintzaren Ekomuseoa
- Ogiaren Txokoa

2 MIRANDAOLAKO PARKEAN, XIX. MENDERAINO.

Aurre industrializazioan murgilduko gara, Mirandaolako Burdinola martxan ikusiz. Teknologia, energiak, lanbideak eta bestelako gaiak lantzen ditugu.

- Euskal Burdinaren Museoa
- Mirandaolako Burdinola

3 LANGILEEN IBILBIDEA, IRAULTZA INDUSTRIALA.

Burdinola zaharrak lantegi bihurtuko dira, olagizonak langile, eta baserri asko langileen etxebizitza. 1950. urtean murgilduko gara, frankismo garaiko herri industrializatu batetan.

- Fabrika
- 1950eko eskola eta etxebizitza
- Chillida Lantoki - Artea



Mirandaolako Parkean, merenderoa, frontoia, haur-parkea, pista jokoa, eta beste daude.

www.lenbur.com - 685 76 83 07 - 645 72 38 37 - ikerketa@lenbur.com



“Gorputz Hezkuntzan esperientzia positiboak bizitzea garrantzitsua da, eskola-garaia bukatutakoan kirola edo jarduera fisikoak egiten jarraitzeko”

ELKARRIZKETA: LUIS LARRAÑAGA 'PIZTI'

GH-KO IRAKASLEA ETA SOHAT-EKO BOZERAMAILEA

Gorputz Hezkuntzako irakasleentzat baliagarria izango den oinarrizko programazioa argitaratu du SOHAT Soin Heziketaren Aldeko Taldeak. Talde horren bozeramailea da Luis Larrañaga 'Pizti' irakaslea, eta programazioa osatzen duten 36 unitate didaktikoen muinaz aritu da elkarrizketan. Gorputz Hezkuntzako irakasleei eta profesionalei euren lana askoz ere hobeto egiten lagunduko dien tresna dela dio. Eta argi ikusten du zer mesede egiten dion horrek

jendarteari: "Tuteran bizitzen egon ondoren, Donostia ingurura etorri nintzen, eta, etxeko eskailerak igo ahala, han ikusten nituen ate ondoetan patinetea, bizikleta, surf-ohola, patinak... Tuteran ez zegoen orduan kultura hori. Jarduera fisikoa eguneroko bizimoduan txertatuta dago leku batzuetan, eta beste batzuetan ez". Desberdintasun horretan, Gorputz Hezkuntzan egiten den lanak eragin izugarria duela dio, alegia, eguneroko bizimoduan nabarmen eragiten duela.



Gorputz Hezkuntzarako oinarritzko programazioa argitaratu berri du SOHAT Soin Heziketaren Aldeko Taldeak Lehen Hezkuntza osorako. 36 unitate didaktiko jarri ditu irakasleen eskura, era koherente batean landuta. Zergatik hartu du aurrea SOHATek? Normalean, argialetxeek egiten dituzte ikasmaterialak.

Bai, baina ez zegoen ezer argitaratuta euskaraz. 2007an gai honi bueltaka hasi ginenean, konturatu ginen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ez zuela inongo asmorik GHko materiala argitaratzeko. Hala, egunero ikasleekin murgilduta gabiltzan irakasleok hartu behar izan genuen lan hori gure gain. Orain egin dugun programazioaren aurretik, beste bat egin genuen. 30 lagun inguru aritu ginen boluntarismo handiarekin lanean, eta 36 unitate didaktiko egin genituen. Baina, nahiz eta txantilo bat ere gisa jarri, nahiz eta irakaslearen artean gutxieneko koordinazio bati eutsi, jada material guztia eskuetan genuenean konturatu ginen ez zeukala koherentziarik. Ez zegoen unitate baten eta bestearen artean kohesiorik. Hezurdura bat, lotura bat falta zuen. Oso etsigarria izan zen modu boluntarioan lan egindako jendeari egindakoak ez zuela balio

esatea. Baina hura utzi, eta argitaratzeko moduko lan bat egiteari ekin genion berriro. Bigarren saiakera honetan, Iraleko R400 formula baliatu dugu, eta liberazioak lortu ditugu material didaktiko hori sortzeko. Programazioa bukatzeko, liberaziorik ematen ez zigutelako, lanorduetatik kanpo hartu behar izan dugu denbora. Guztira 15 lagun inguru jardun gara, guztiok GHko irakasleak, ikastetxe eta lurralde desberdinetakoak.

Eta, azkenean, hemen daukagu emaitza: *Lehen Hezkuntzarako programazioa, praxiologia motorren ikuspegitik ekintza motorren eremuetan oinarritutakoa*; 1. mailatik 6. mailara doazen 36 unitate didaktiko, modu koherente batean emanak. Denak eskuragarri daude edozein irakaslerentzat, bi lekutan: SOHATen blogean (<https://sohat.blogspot.com/>) eta Berritzeguneen GHko atalean (<http://www.gorputzheziketa.hezkuntza.net/es/programazioak>). Iraletik pasatu dira unitate guztiak, eta EIMAK ere zuzenketak egin ditu. Beraz, Iralen ere egongo dira zintzilikatuta, eta Eusko Jaurlaritza ere bere argitalpean atalean jartzekoa da.

Garbi ikusten al zenuten oinarritzko programazio honen beharra?

Bai. Ikusten genuen irakasle asko ikastetxetara ordezkapenak egitera joaten zirela, eta ez zegoela inongo materialik. GHko karpeta hutsik zegoen, curriculum-proiektuan ezer idatzi gabe. Zenbait ikastetxetan, bazegoen zerbait, baina, gehienetan, joko-bilduma bat. Orduan, konturatu ginen batzuentzat GH jolas orduaren luzapena edo jolas arrakastatsu batzuen praktika zela. Eta GH hori baino zerbait gehiago da.

Horren ondorioz, zenbait irakasle teoria eta praktika uztartu nahian hasi ginen, eta hortik etorri dira hausnarketa, prestakuntza... Ausartu, eta gauzak esperimintatzen hasi ginen, eta, ondoren, oinarritzko programazioa diseinatzeko asmoa sortu zen. Hasieran amets ero moduan ikusten genuena bete dugu.

Nolako programazioa osatu duzue? Zer oinarri ditu?

Programazioa egiteko, oinarri teorikoak bilatzeari ekin genion, eta, bilaketa horretan, Jacako San Juan de la Peña ikastetxe publikoko irakasle batekin egin genuen topo, Alfredo Larraz irakaslearekin. Urte asko pasatu ditu ikastetxe horretan GHko irakasle gisa, eta Huescako Irakasle Eskolan ere aritu da 3 urtez, eskolak ematen.

Gaur egun, esan daiteke GHn programatzeko era koherenteena Larrazek eskaintzen dituen ekintza motorren eremuena dela. Falta zitzaigun hezurdura eman zigun hark. Izan ere, oso iaioa da teoriaren arloan; praxiologia motorren esparrutik dator hura ere, eta, horrez gain, Lehen Hezkuntzako GHko irakaslea izan da beti, arlo horretako espezialista; eguneroko lan praktikoan murgilduta egon da, beraz, teoria eta praktika bere egunerokoan txertatuta dituen pertsona da, oso-oso eskarmentu handikoa.

Orduan, harekin elkartzen hasi ginen, eta, hari esker, programazio koherente bat egiteko ikuspegi bat jaso genuen. Ekintza motorretan oinarritutako sailkapen bat abiapuntutzat hartzea planteatzen zuen hark, eta, sailkapen horrekin, programazio koherente bat diseinatzea, egiten genuena justifikatuz; honela, horrela eta hala, honengatik, horregatik eta hargatik. Bide horri eutsi behar geniola konturatu ginen.

Zer atera da hortik? Zer ezaugarri dituzte egin dituzuen 36 unitate horiek?

1. mailatik 6. mailara arte, 36 unitate dira, maila bakoitzean sei. Hiruhileko bakoitzean, bi unitate lantzen dira, eta hamar saio ditu bakoitzak. Lehen hiruhilekoan, 20 saio, 20 ordu. Ikasturte osoan, 60-66 ordu izaten ditugu. Beraz, ikasturte osoan sei unitate didaktikoak lantzeko denbora nahikoa dago.

Unitate didaktiko bakoitzean, ekintza motorren eremu bateko jarduera zehatz batzuk eskaintzen dira. Hasteko, bakarkakoak; adibidez, atletismoa edo patinajea. Bigarrenik, buruz buruko jarduerak; esate baterako, esku-pilota, tenisa edo badmintona. Hirugarrenik, elkarlaneko ekintzen eremua lantzen da eta eremu horren helburu nagusia da ikasleak ingurune egonkor batean xede komun bat lortzeko aritzea. Laugarren atala aurkaritzan edo lankidetzan oinarritutako taldeko kirolak dira; kasu horretan, normalean praktikatzeko horren errazak ez direnak: errugbia, artzikirola, boleibola... Bosgarrena atalekoak ziurgabetasunaren eremuko jarduerak dira. Espazioak ziurgabeta-

sunak eskaintzen duten jarduerak dira. Normalean, gure jardueren % 90tik gora ingurune egonkor batean izaten dira; alegia, oso espazio seguruetan, beti berdina direnatan. Esate baterako, saskibaloiko partida bat hemen, Washingtonen edo Leningradon jokatu, kantxa, markak eta dena berdina izango da. Aldiz, eskalada edo mendiko bizikleta egiten badugu, aldatu egiten da espazioa aldi oro: zailtasuna, haizea, euria... aldatu egiten dira baldintzak. Hortaz, esperientzia horiek irakurtzen jakin behar dugu, eta horren arabera, erabakiak hartzen, gure segurtasuna bermatzeko. Eremu horretako jarduerekin, ikasleek euren beldurrei aurre egiten, ziurgabetasun-eremu horiek non dau den antzematen eta horiek kudeatzen ikasten dute. Segurtasunez eta modu autonomoan mugitzen ikasten dute. Azkenik, seigarren atalean adierazpen-jarduerak proposatzen ditugu, gorputzaren bitartez bere emozioak, bere ideiak... kanporatzen eta adierazten ikas dezan. Batzuetan bakarka eta beste batzuetan taldeka.

Modu horretara, Lehen Hezkuntzan ikasleek ikasturte bakoitzean ekintza-eremu guztiak praktikatzeko dituztela ziurtatzen dugu. GHko eduki guztiak landuko dituztela egiaztatzen dugu. Horrela, ikasleak, nerabe izatera iristen denean, esango du: “Nik nahiago dut bakarka, zeren ez zait gustatzen taldetan eta beste baten aurka aritzea”, edo “nahiago dut lankidetzaren eremuan murgildu”, edo “nahiago dut ziurgabetasun-eremuko, zeren nik naturarekin erlazionatu nahi dut, horrek plazera eta ongizatea ematen dizkit”.

Orain arte, kasu askotan, irakasle bakoitzak bere gogoaren arabera jokatzeko zuen: “Nik boleibola kontrolatzen dut, eta boleibola erakusten diet”, “nik esku-pilota”, “nik saskibaloia”, eta horrela. Horrek ezin du horrela izan. Programazioak justifikatuta egon behar du. Zergatik aukeratu boleibola, eta ez saskibaloia edo futbola? Agian, eskola-kirolaren bitartez kirol horiek landuta daudelako eta praktikatzeko aukera gutxiago dutenak indartu nahi ditugulako, eta boleibolean, ikasleen hasierako trebetasun mailan, oreka gehiago

“Unitate bakoitzean, ekintza motorren eremu bateko jarduera zehatz batzuk eskaintzen dira: bakarkakoak, buruz burukoak, elkarlanekoak, aurkaritza edo lankidetzaren taldeko kirolak, ziurgabetasun eremukoak eta adierazpen-jarduerak”

“Oinarritutako programazio honekin Lehen Hezkuntzan ikasleek ikasturte bakoitzean ekintza-eremu guztiak praktikatzeko dituztela ziurtatzen dugu”

“Heziberrin kompetentzia motorra txertatuta dago, eta hori lorpena da. Baina, gero, hori garatzeko nahiko ordurik ez baduzu eta curriculumak hala moduzkoa bada, tresnarik gabe uzten dituzu irakasleak”



aurkitu dezakegulako. Hor badago justifikazio bat.

Beraz, unitate horietan, jarduerak proposatzen dira, eta jarduera bakoitzarekin lantzen diren ekintzen eremua, helburu didaktikoak, ebaluazio-irizpideak, ebaluazio-taulak, jarraipen-fitxak, lorpen-fitxak, material osagarriak, lorpen-adierazleak, curriculumean zehaztuta dauden arloko helburu orokorrak, zehar-kompetentziekin duten lotura, oinarritzko kompetentziekin duten lotura... Dena jorratuta dago.

Irakasle bakoitzak programazioa bere testuingurura egokitzea falta da.

Curriculum aipatu duzu. 2007an, GHri curriculumean zituen bi ordu eta erdiak murriztu, eta ordu eta erdi utzi zitzaizkion. Gaur egun, horrela jarraitzen du. Zer ondorio izan ditu orain dela 12 urteko erabaki hark? Mobilizazio asko egin genituen murrizketa horren aurka. Babes soziala lortu genuen, sinadurak, sindikatuen

babesa... Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordera joan ginen, eta haren babesa jaso genuen, GHren gutxieneko bi orduak bermatzeko. Baina Eusko Jaurlaritzak ez zuen onartu. Garai hartan, PSE zegoen agintean, eta beste bat zen Isabel Celaaren ildo: ingelesa indartzea. Horretarako, noski, beste ikasgai batzuei denbora kendu behar zitzaien, eta ingelesari eman. Gerora, EAJk ildo hari jarraitu dio, eta, nahiz eta oposizioan zegoenean GHri orduak murriztearen aurka egon, ez du aldaketarik egin gero, agintea hartu duenean. Hori da gaur egungo politikaren jokoa.

Tartean, SOHAT sortu genuen, Soin Heziketaren Aldeko Taldea, eta, Eusko Jaurlaritza aurreneko Heziberri diseinatzen hasi zenean, GHko curriculumaren diseinuan parte hartzea gonbidatu gintuzten. Parte hartu genuen, baina, egia esan, esperientzia nahiko etsigarria izan zen. Aberatsa izan zen Xabier Garagorriekin jardutea eta gure ikuspuntua helaraz-

tea, baina bai Xabier Garagorrik eta bai Javier Granja ikuskarrien buruak oso garbi adierazi ziguten une hartan Hezkuntza Sailean zeudenen aldetik jaso zuten mezua edo agindua zera izan zela: GHko curriculum ahal zen gutxiena ukitu behar zela. Orduan, ez genuen ulertzen zergatik eta zertarako gonbidatu gintuzten. Ez zituzten gonbidatu ez orduko Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea (SHEE), ez Irakasle Eskolak eta ez GHko espezialitatea ematen zutenak.

Orduan, metodologikoki eta planteamendu aldetik beste bultzada bat eman nahi genion GHko curriculumari Heziberrin, baina EAJk ez zituen aintzat hartu Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordearen jarraibideak. PSEk indarrean jarri zuen curriculumarekin jarraitu zuen, eta GHren ordutegi minimoak ordu eta erdikoa izaten jarraitu zuen; eta halaxe jarraitzen du.

Azken Heziberrin, kompetentzia motorra txertatuta dago, eta hori lorpena da, noski. Lorpen handia da kompetentzia motorra erreferente gisa edukitzea, eta hala aldarrikatzen dugu. Baina, gero, nahiz eta hori adierazi, hori garatzeko nahiko ordurik ez baduzu eta curriculum ahal moduzkoa bada, tresnarik gabe uzten dituzu irakasleak. Beste lorpen bat ere bada: gaur egun, Berritzegune nagusian, badugu GHko aholkulariaren figura. Asko borrokatu behar izan genuen figura hori ezartzeko (beste arloetan ezarrita zegoen figura).

Nik uste dut hezkuntzan tranpa egiten ari garela: gai dira oso curriculum dotorea idazteko, baina gero, errealitatean ez dugu hori bermatzen gutxieneko ordutegiarekin. Eta, gure kasuan, edukiaren aldetik ere ez. Victor Manuel Lopez Pastorrek, GHn aditua eta doktore denak, hala esan zigun ekainean egindako topaketan: "Estatu mailan dauden curriculumak aztertu ditut, eta txalotzekoa da EAEn kompetentzia guztien artean kompetentzia motorra, legez behintzat, bermatuta duzuela, maila teorikoan. Baina ez dator horrekin bat daukazu curriculum a. Zeren daukazuen curriculum a duela 20 urtekoa da, LOGSE garaikoa. Hor ikusten den espiritua, dauden edukiak, dauden atalak eta jarrita dauden helburuak

antzinako xedeak dira. Orduan, gaur egun, konpetentzia motorra aipatzen duen curriculumak beste ikuspuntu bat eduki beharko luke”. Gaur egun daukagun curriculumean, dena sartzen da, dena delako kultura motorra, baina ez da tresna lagungarria eta argia irakasleon programazio-lana egiteko. Ez du bat egiten ikasleek bizi duten errealitatearekin.

12 urteotan, ez da lortu curriculum hori aldatzea. Aurrera begira, horretarako biderik ikusten duzu?

Ez dakit. 12 urteotan Hezkuntza Sailaren jarrera zein izan den ikusita, badago etsipenerako motiborik. Edonola ere, programazioan erakutsi dugun indarrari eta motibazioari jarraituz, nire ustez, erronka handia izango litzateke Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, EHUko, HUHEZIKo eta Deustuko GHko espezialitateak, SOHAT eta sare guztietako GHko irakasle interesatuak biltzea eta denon artean curriculum berri bat egiten saiatzea, dagoen beharra ikusita. Garbi dago Administrazioak ez duela aurrerapausorik emango norabide horretan. Denon arteko esparru bat sortu, eta denon artean curriculum-proiektu koherente bat egin dezakegu, eta hori proposatu Hezkuntza Sailari. Ezin dena egin da curriculumean dena, korrante guztiak, nahaste-borrastean sartu, hori ez baita ez eraginkorra, ez koherentea. Gaur egungo curriculumak kontraesan bezala dago, eta ez da lan-tresna egokia guretzat. Nik neuk askoz gehiago begiratzen diot Frantziako curriculumari hemengo curriculum orokorrari baino.

Zer-nolako ezaugarriak ditu, bada, Frantziako GHko curriculumak?

Frantziako curriculumean, adibidez, zehaztasun osoz adierazten dizu ikasleak patinatzen zer garapen izan behar duen Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara, eskaladan zer trebakuntza egin behar duen, edo buruz buruzko kiroletan, bakarka aritzen denean... Askoz jarraibide gehiago ematen dira, eta irakaslearentzat, erreferentziak askoz garbiagoak dira bai materiala sortzerakoan, bai programazioak diseinatzekoan. Askoz ere zehaztuago

dago ikasle bakoitzak zer lortu behar duen, eta errazago eta garbiago ulertzen ditu irakasleak. Gurearen orokortasunean, galdu egiten gara, berdin du boleiboleko unitate didaktiko bat landu edo zirkoko unitate didaktiko bat landu. Ez da batere lagungarria aukeraketa justifikatzeko.

Edonola ere, Europa iparraldean curriculumak askeagoak izateko joera dago. Norberari egokitzeko aukera ematen zaio, eta ez dira horren zehaztuak.

Zehaztasun horrek ez du esan nahi zuk derrigorrez hori bete behar duzunik. Aitzitik, zehaztasun horrek argibideak ematen dizkizu. Adibidez, patinajea egin nahi baldin badut, ikaslearen progresioa Lehen Hezkuntza osoan nola bideratu behar nukeen esaten dit. Horrek argibideak ematen dizkit, eta sekuentziatzen, programatzen eta helburuak zehazten laguntzen dit.

Nik ez dut curriculum itxi bat nahi, kortse batekin lan egitea bezala izango litzakeelako, baina argibideak ematen dituen eta irakasleari bere lana egiten laguntzen dion curriculumak bai. Gaur egun guk daukagun curriculumean, ez dira agertzen ez patinajea, ez eskalada, ez badminton... Askoz ere gauza orokorragoak aipatzen dira, eta orokortasun horretan, galdu egiten dugu ikasleak jarduera motor bat egiten duenean zer barne-logika erabiltzen duen edo ekintza horren printzipioak zein diren jakiteko aukera.

Edonola ere, ez da curriculumaren kontua soilik. Hori alderdi bat da. Beste alderdia irakaslearen prestakuntza da. Curriculumak argibideak eman arren eta han aipatzen diren helburuak eta ebaluazio-irizpideak bete arren, irakasleok geure edukiak eta proposamenak txerta ditzakegu. Horretarako, noski, irakasleak prestatuta egon behar du, eta nik uste dut gaur egun askok ez daukatela prestakuntza hori, unibertsitate-eskoletan oraindik ere ez delako ematen, neurri batean.

Irakasleen prestakuntzan gabezia ikusten duzu, beraz?

Bai. Orain arte, ikasleari jarduera bat eskaintzean, ez genuen aztertzen eta zehazten jarduera hori egitean zer

“Erronka handia izango litzateke Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, EHUko, HUHEZIKo eta Deustuko GHko espezialitateak, SOHAT eta sare guztietako GHko irakasle interesatuak biltzea eta denon artean curriculum berri bat egiten saiatzea, dagoen beharra ikusita”

“Ebaluazio-diagnostikoan, zer arlo neurtzen dira? Zer konpetentzia neurtzen dira? Bada berriro hizkuntzak, matematika eta zientziak. GH edo konpetentzia motorra, konpetentzia artistikoa eta konpetentzia soziala ez dira inoiz ebaluatzen. Eta ebaluatzen ez dena inoiz ez da sartuko hobekuntza-planetan”



eginkizun motorretan murgiltzen zen. Noski, eginkizun motor hori ikasleei transmititzen jakiteko, irakasleak berak jakin behar du lehendabizi. Programazio koherente batekin batera, irakasleok ikasleei “erakusteko” konpetentzia (barruan daukatena ateratzen laguntzekoa) garatu eta lortu behar dugu.

Eta gabezia hori ikusten dugu, bai: irakasleok ez dugu horretarako behar besteko prestakuntza jaso. Jakin behar dugu eginkizun motor bakoitzean ikasleei zer transmititu behar diegun; Matematikan problema bat ebazten ari zarenean, ikasleei zer estrategia erakutsi jakin behar duzun bezala. GHn ere, gauza bera da. Ez da nahikoa ikasleei lau jolas planteatu, jolastu, ordua bete eta irakasle-gelara itzultzea. Ez. Jakin egin behar dugu jolas bakoitzarekin benetan zer dinamika, zer barne-logika eta zer estrategia bultzatzen diren. Bakarka aritzen garenean, printzipio batzuk behar izaten ditugu, baina printzipio horiek ez

dira buruz buru ari garenean erabiltzen ditugunen berdinak, are gutxiago taldean aurkariak dauzkagunean eta lankidetzan aritu behar dugunean erabiltzen ditugunen berdinak. Kasu bakoitzean, ikasleak jakin egin behar du ekintza-printzipio horiek barnerratzten, gero egoera errealelara eramaten dituen arrakasta lortzeko.

Zentzu horretan, prestakuntza gabezia handia ikusten dugu, eta, horregatik, lan handia egiten ari gara, mintegietan eta abarretan prestakuntza eskaintzeko.

Zer-nolako harremana du GHk eskoletan beste ikasgaiekin? Eta GHko espezialistak gainerako irakasleekin?

Lehen aipatu bezala, Isabel Celaak ingelesa bultzatzeko hautua egin zuen, eta ordu gehiago eman zitzaizkion ingelesari. Horrekin batera, ebaluazio-diagnostikoei, PISAri eta horrelako probei esker, indartuta ateratzen dira betiko arloak (hiru hizkuntzak, matematika eta zientziak).

Hori horrela izanik, beste arlo batzuei presentzia txikiagotu egin zitzaien eskoletan, besteak beste, GHri, Plastikari eta Musikari. Gaur egun, erabaki horren ondorioak pairatzen ari gara ikastetxeetan; ingelesak gora egin du prestigioan, euskararen kalterako askotan. Klaustroetako, etapetako edota zikloetako eztabaidetan atera ohi da gai hori. EAEko ikastetxeek Lehen Hezkuntzan 19 ordu antolatzeke autonomia dute. Eta balizko autonomia hori ikastetxe gehienek jada indartuta dauden arloak berrindartzeko erabiltzen dute. Gainerako arloak era anekdotikoan geratzen ari gara. Musikako eta Plastikako 45 minutuko saio bakarrarekin asteen, zer helburu lor liteke? Curriculumean bai, dokumentu teoriko politak idatz daitezke, baina, errealitatean, ezin da bete hor idatzitakoa, asteen 45 minuturekin. Familiei iruzur egiten ari gara hor. Azkenean, eskolak behar adina asetzen ez duelako, hainbat familia derrigortuta daude musikako eskolak edo arteko lantegiak beren poltsikoetatik ordaintzera.

Horrez gain, ebaluazio-diagnostikoa dago. Ebaluazio-diagnostikoa, zer arlo neurtzen dira? Zer konpetentzia neurtzen dira? Bada, berriro hizkuntzak, matematika eta zientziak. GH edo konpetentzia motorra, konpetentzia artistikoa eta konpetentzia soziala ez dira inoiz ebaluatzen. Eta ebaluatzen ez dena inoiz ez da sartuko hobekuntza-planetan. Inoiz ez da esango “hor hutsune bat dago”, “hau indartu egin behar dugu” edo horrelakorik.

Adibide bat jarriko dut. Mezu bat bidali ziguten eskolara, esanez wifi puntu guztiak berrituko zituztela eta wifi indartsuagoa jarriko zutela irakaskuntza-lana egiten den esparru guztietan: laborategian, mintegietan, irakasle-gelan, ikasleen gela guztietan... gimnasioan izan ezik. Harrituta, berriro irakurri nuen mezua, eta hala zioen: gimnasioan izan ezik. Nik ikasleei gimnasioan pantaila jartzen diet bideoak ikusteko, adibideak ikusteko; koreografiak egiten badi-tugu, youtube behar dugu askotan Internetera sartzeko edo ereduak ikusteko; haiek bideo batzuk sortzen badituzte, ikusi egin behar ditugu,

youtubera igotzen ditugu... Nahiz eta gure arloan alderdi motorrean erabat murgildu, iristen dira teknologia berriak GHra ere. Agian Lakuako batzuk oraindik ez dira jabetu, baina iritsi dira. Eta inortxo ere ez da konturatu hanka-sartze horretaz. Garbi dago gimnasioan ere irakaskuntzarena egiten dela.

Orduan, iruditzen zaizu da bakarrik geratzen zarela etapan edo klaustroan arloaren balio hezitzailea defendatzen. Zergatik? Eusko Jaurlaritzak nahita apustu hori egin duelako eta ikasle-eredu jakin bat nahi delako etorkizunerako. Eskolako errealtateak ez dira kasualitateak, ez dira hutsegite soilak. Nondik hurbiltzen gara hezkuntzara? Errendimenduaren ikuspegitik ala ikasle bakoitzaren garapena bultzatzeko ikuspegitik? Irakasle eta eskola bakoitzak bere erantzuna du galdera horien aurrean.

Zer funtzio edo eginkizun bete beharko luke GHk eskoletan?

Batzuentzat GHk funtzio konpentsatzailea betetzen du. Hor gaude, ikasleak beste arlo garrantzitsu horietan nekatu ondoren, pixka bat atsedean hartzeko, jolasteko. Eta ez da hori. Ikaslearen garapen fisikoa eta motorra da gure eginkizun nagusia (garapen pertsonala beste arlo guztiekin batera bultzatuko dugu), eta errealtatean duten kultura motorraz jabetzea. GHk berak badu objektu propio bat bere barnean. Hau da, ikasleak ekintza-printzipio batzuk eta barne-logika batzuk ikasi behar dituela esaten dugunean, horrekin esan nahi dugu ikasleak jakin egin behar duela norbaiten aurka ahalegintzen denean zein diren bere puntu ahulak eta puntu indartsuak, horren arabera eta besteak ematen dion erantzunaren arabera bere jokoa egokitzeko eta moldatzeko. Horrek ez du balio etorkizunean kirolari profesionala izateko soilik. Ez gara ari Basque Team-en sartuko diren horiez bakarrik. Ez. Gure ikuspegia ez doa elite horretara soilik bideratuta. Azken batean, GH Derrigorrezko Hezkuntzaren barnean dago; 16 urte arte, ikasle guztiek eduki behar lituzketen esperientzia motorrez ari gara. Ez da elite batenzat bakarrik lan egiten. Matematika

zer irakasten da, gero matematikari izateko? Hizkuntzak zer ikasten dira, gero filologo izateko? Ez. Pentsatzen da hor ikasten ditugun edukiak gero lagungarri izango ditugula gure eguneroko bizitzan.

Gaur egun, bai ariketa fisikoa egitea, bai kirolak praktikatzea, bai natura-inguruan ziurgabetasun-eremuko jarduerak praktikatzea, oso txertatuta daude gure bizi estiloan, gure errealtatean eta, zer esanik ez, Euskal Herrian. Orduan, kultura-motor hori bultzatu behar diegu ikasleei beren etorkizunean era autonomoan praktika dezaten, euren borondatez, esperientzia positiboak izan dituztelako eskola garaian.

Eskola garaian GHn esperientzia positiboak bizitzea azpimarratzen duzu. Zer-nolako garrantzia du positibo adjektibo horrek?

Erabatekoa. Esperientzia positiboak bizitzen badituzte, aukera gehiago izango dute etorkizunean euren bizitzan jarduera horiek txertatzeko. Aldiz, GH gorrotatzera iristen badira, ez dute ez kirolik ez bestelako jarduerarik egin nahi izango. Horregatik, GHko irakasleena lana, besteak beste, ikasleei ahal ditugun esperientzia aberasgarrienak eskaintzea da. Ez da lau jolas egitea soilik.

Horregatik, esperientzia positiboak eskaintzeko abagune interesgarria iruditzen zait GH. Lehiatu beharrik gabeko jarduerak txerta daitezke. Ia ikasleen erdiari ez zaio gustatzen lehiatzea. Antzerkia, dantza, eskalada, bizikleta... horrelakoetan primeran moldatzen dira lehiatzea gustatzen ez zaienak ere, eta hori ere eskaini behar da. Eredua lehiaketa soilik baldin bada, beste eredu guztiak alboratzen ari zara, eta, orduan, normala da batzuek GH gorrotatzea azkene-rako. Ikasleak denetarik egin behar du; GHren barnean dauden eduki guztiak edo gehienak esperimendu behar ditu. Eta, gainera, egindakoaz hausnartu egin behar du: jarduera egin ondoren, gelditu eta hausnartu, ikasleei galdetu egin behar diegu zer ikasi duten... Eta, horrela, etxera zerbait ikasi duten sentsazioarekin joaten dira. GH ez da jolastea soilik, baina jolastuz ikasten dugu, noski. Nik uste

du jende askok bere ikasle-garaian esperientzia ezkorrak izan zituela GHn, eta oraindik ez duela arloaz duen begirada ezkorra aldatu.

Beraz, oso garrantzitsua da esperientzia positiboak izatea, gero, eskola bukatutakoan, nor bere kabuz egiteko. Helburua da helduak izatean zerbait praktikatzea, berdin du zumba, esgrima edo bizikleta. Horregatik, eskolako praktikak onurarria eta positiboa izan behar du. Eta ez zaldia, plintoa eta horrelakoekin izandako esperientzia txarrak bizi, eta oroimen ezkor horiek gorde bizitza guztirako.

Administrazioaren bidez biztanleen praktika fisikoak areagotzeko eta aberasteko *Mugiment* eta horrelako proiektuak bultzatu nahi badira, ez du inolako zentzurik haurretan eta gaztetan praktika fisikoaren saio kopurua murriztea eskola-orduetan. Kontraesan nabaria eta interesatua da.

Gure ikuspuntua ahalik eta jende gehienak benetan praktika fisikoak egitea edota kirolak egitea da, hori bilatzen dugu. Berdin da norbait paseatzera, hondartzan olatuak hartzera joaten den, edo bere emozioak dantza librean adierazten dituen. Gizarte osoaren zera hori bilatzen dugu guk. Ez osasunaren ikuspegitik soilik, baita plazeragatik eta ongizateagatik ere. Mugitzearen garrantziaz jabetuta, benetan gozatzea, bizitzaren kalitate-rako ezinbesteko tresna den aldetik. Hori da bilatu behar duguna: norberak bere bizimodu kirol-praktikak edo praktika fisikoak txertatzea. Hor dago gizarte osoaren aberastasuna, eta horretarako, noski, praktika-ereduak eman behar zaizkie. Ikasleei esperientzia motor aberatsak bizitzeko aukerak eman behar zaizkie, eta esperientzia horietako bakoitzean izan behar dute adituak eta jakintsuak, arrakasta lortzeko. Esate baterako, ziurgabetasun-eremu batean, mendian, adibidez, jakin behar dugu ez dugula hanka jarri behar enbor busti baten gainean, irristatzeko arriskua dugulako. Edo hartxintzarretan hanka nola jarri behar dugun. Edo elurretan nola jaitsi behar dugun. Gauza horiek jakiteak esperientzia batzuk eskatzen ditu, eta GHko eskolak horrelako esperientzia aberatsak eskaintzera bideratu behar ditugu.

ESPERIENTZIAK

MUSIKARIAK IKASTETXEETAN

Leiho bat euskal kulturari

Euskararen eta euskal kulturaren transmisioa bultzatzeko musika ikasgeletara eraman dute Nafarroan, 'Musikariak ikastetxeetan' heziketa-programaren bidez. Iaz jarri zuten martxan: 21 musikariek 88 saio egin zituzten, eta egitasmoak izan zuen arrakastari esker, ikasturte honetan bikoiztu baino gehiago egingo dituzte saioak: 32 musikariren artean 191 saio egingo dituzte Nafarroa osoko A eta D ereduko Batxilergoko eta DBHko ikastetxeetan.

Ideia oso argia da: gazteei euskal kulturarako leiho bat irekitzea, musikaren bidez. “Gazteek, eskolatik kanpo euskararekin duten harreman ia bakarra, behintzat Nafarroan, musikaren bidez da. Musika asko entzuten dute, erdal musika barra-barra, baina baita euskal musika ere, tarteka, nahiz eta A ereduan ikasten duten gazteak izan. Beraz, eskolatik kanpoko eragin hori gela barruan biderkatu nahi izan dugu”. Alberto Barandiaranen hitzak dira Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Euskara Saileko teknikariarenak. Ideia *Musikariak ikastetxeetan* programan gauzatu zen, eta programa horren barruan, Nafarroako A eta D ereduko DBH eta Batxilergoko ikastetxeetan 88 saio egin zituzten 21 euskal musikariek iragan ikasturtean.

Eta emaitza espero baino are hobea izan da: ikasleek egun gogoangarria igaro zuten euskal musikari batekin, eta gazte askori euskal kulturari begiratzen hasteko leiho bat ireki zitzaion. Egitasmoaren arrakastaren erakusle da ikasturte honetan bikoiztu baino gehiago egingo dituztela musikariek ikastetxeetan egingo dituzten saioak,



Iker Lauroba iazko ikasturtean Elortzibar ikastetxeetan egin zuen saioan, Nerea Molinero ikasleak ukeleleaz laguntzen dio.

191 emanaldi egingo dituzte 32 musikariek Nafarroa osoan, Lodosatik Elizondora, Tuteratik Altsasura, aurrekontua indarturik. “Balorazioa oso positiboa izan da guztien aldetik, bai irakasleek eta bai musikariek berri-tzailatzat hartu dute, eta gazteentzako aberasgarri, eta horien motibazioa nabarmendu dute guztiek”.

Musikariak ikastetxeetan programak euskara eta euskal kulturaren

transmisioa Nafarroan bultzatzeko helburua du, eta *Idazleak ikastetxeetan* programaren antzera ikastetxeak sortzaile bat hartzen du eskolan. Kasu honetan, ordea, D ereduko ikasleek gain A eredukoak ere izan dira hartzaile, eta “guztiei erakutsi nahi izan zaie euskal kulturaren aniztasuna, eta bereziki euskal musikarena”, Barandiaranen arabera.

La Basu, Ines Osinaga, Olatz Salva-



Ines Osinaga Pedro Atarrabia ikastetxean egin zuen saioan.

dor, Miren Narbaiza, Joseba Irazoki, Zuriñe Hidalgo, Jon Gurrutxaga, Jon Basaguren, Amorante, Gorka Urbizu, Maite Larburu, Rafa Rueda, Alex Sardui, Mursego, Gari, Izaro, Eñaut Elorrieta, Joseba Tapia, Xabi San Sebastian, Mikel Markez, Mikel Urdangarin eta abar luze batek parte hartu dute egitasmoan. Izen kontsagratuak batzuk, ez hainbeste, beste batzuk. Musikari bakoitzak, 90 minutuko saioan, hiru egiteko zituzten: euskal musikaren panoramaren berri eman, euren sortze-prozesua azaldu eta ondotik kontzertu txiki bat ematen zuten. “Historiaz printza batzuk emateaz gain, musikariek euren bizipena kontatzen dute, eta hori plus bat da gazteentzat, bat egiten baitute bizipen horrekin”, azaldu du Barandiaranek.

Ikasturte honetan programa sendoturik abiatu dute, kopuruz nola edukiz. Bi berrikuntza izango ditu egitasmoak: batetik, ikastetxeetan euskal kultura eta musikaren transmisioa lantzeko EIBZ (Euskararen Irakaskuntzaren Baliabide Zentroak) bi unitate didaktiko prestatu ditu, eta euskal musikaren inguruko materiala bildu dute irakasleak ikasleekin saioaren aurretik eta ondoren euskal kantugintzan sakontzeko. Bigarrenik, behin musikaria ikastetxe batera iritsirik, auzoan edo herrian bertan arratsaldez beste saio bat antolatzea proposatuko diete tokian tokiko euskara elkartei, Euskal Teknikarien Nafarroako sarearekin harremanetan.

Musikarientzat ere, saio bereziak

Noingo Elortzibar eta Iruñeko Gurutzeko Plaza ikastetxeetan Iker Laurobaren bisita jaso zuten. A ereduko ikastetxeak dira biak eta ikasleen artean ez zen ezaguna musikari gonbidatua. Nerea Molinero Elortzibar ikastetxeko ikasleak Vendettaz gain apenas ezagutzen zuen euskal talderik, guztiz urruneko egiten zaio euskal kultura, baina hala ere egun berezia izan zen berarentzat: “Asko gozatu nuen saioa, oso parte-hartzailea eta dinamikoa izan zen eta ikaragarri ederra izan zen sortze-prozesua nola bizi zuen ikustea eta berarekin kantu bat sortzea”. Ikasleak lanean jarri zituen Laurobak: hitzak eta esaldiak eskatu zizkien, gero denen artean abesti baten letra osatzeko. Hitzak aski ez, eta musika ere jo zuten gazteek, Molinerok ukeleleaz lagundu zion: “Lauroba etorri aurretik gitarra uzteko erabakia hartua nuen, baina egun hartatik aurrera neure kabuz jotzen jarraituko dudala uste dut”.

Egun hartan ikasleek erakutsi zuten interesa ondo gogoan du Molineroren Euskara irakasleak, Miren Blancok: “Beldur nintzen ikasleek interesik ez izatea eta ez parte hartzea; puntuazioan laguntzea ere zin egin nien galderak egin eta parte hartzea motibatuzko, baina ez zen beharrik izan, interes handiz egin zizkieten galderak, nahiz eta euskal mundua oso arrotz duten ikasleak izan”.

Egun hartako interesa baliaturik, hurrengo eskolak ere erabili zituzten euskal kantugintzan eta kulturgingintzan sartzeko. “Euren motibazioa baliatuz, Informatikako eskoletan ere euskal musikari buruzko informazio bila aritu ginen *badok.eus* musikako webgunearen bidez, eta irakasle bezala, aukera ederra izan da leiho hau zabaltzea”.

Eki Goñi Gurutzeko Plaza ikastetxeko ikasleak ere Laurobaren saioaren oroitzapen ederra du: “Euskal musika jarraitzen dut gutxi-asko, baina ez nuen Iker Lauroba ezagutzen; orduetik bere jarraitzailea naiz sare sozialetan eta bere disko berria ere entzun dut eta gustatu zait”.

Ikasle eta irakasleentzat ez ezik, musikarientzat ere saio bereziak izan dira programa honen barruan gauzatu dituztenak. “Saio bereziak dira, balio handikoak —dio Ines Osinagak—, baina ez dira saio errazak musikari bezala, ez baitira musika modu naturalean bizi duten espazioak. Pertsonalki asko gozatu dut”. Baita Zuriñe Hidalgok ere: “Ikasleek, lehenengo momentutik motibazioa eta interesa azaldu zuten eta saio guztietatik oso gustura eta sentazio onarekin atera nintzen; eta eurak ez ezik, nik ere saio bakoitzeko zerbait berria ikasten nuen ikasleekin”.

Hidalgok sentazioa du *Musikariak ikastetxeetan* programaren bidez ikasle batzuegan zerbait ere izanarena. “Uste dut ikasleak gustura ge-

ESPERIENTZIAK: MUSIKARIAK IKASTETXEETAN



Nerea Molinero eta Eki Goñi ikasleak Miren Blanco irakaslea erdian dutela.

ratu zirela eta, nire ustez, batzuegan hor barruan zerbait mugitu edo aldatu nuen; motibazioa piztea, musikaren mundua gertu sentitzea, emakumea izanda posible dela ikustea... oso inportanta dela uste dut”. Pena du, berak bere garaian halako aukerarik eduki ez izana ikastetxean. “Tamalez, ez eskolan, ez musika-eskolan, ezta inon ere, ez nuen halako esperientzia bat bizitzeko aukera eta plazera izan, eta behin baino gehiagotan pentsatu dut: ze pena! Izan ere, batez ere adin horietan, eta are gehiago, emakumea izanik, oso inportantea da erreferenteak izatea, hauek gertu sentitzea, euren ahotik esperientziak entzutea, galderak egiteko aukera izatea... Orain, asko eskertuko nuke garai horietan, niretzat erreferentea zen Sorkun bezalako artista eta emakume bat, adibidez, gurera etorri izana. Akaso askorengan gauzak ezberdinak izango ziren, ala ez, baina uste dut halako ekintzetatik gauza positiboak bakarrik atera daitezkeela”.

Leihotik barna

Ines Osinagak ere uste du egitasmo honek “gauza potenteak” erein ditzakeela gazteengan: “Ez gazte hauek etorkizuneko kultur kontsumitzaileak eta sortzaileak izan daitezkeelako bakarrik, baizik eta dagoeneko gure kultur ekosistemaren parte direlako eta merezi dutelako kultura presente edukitzea eta hezkuntzan musika presente edukitzea”. Beharrezko ikusten

ditu gisa honetako programak eta ez soilik Nafarroan, baita Euskal Herri osoan ere, euskal kulturaren transmisioa, gaur egun, ez delako modu naturalean gertatzen: “Transmisioa ez da naturala, badirudi kultur-transmisioa naturalki gertatzen dela, amak kantatzen dizkigun kantuetan gertatzen dela, eta ez, ez da naturala, transmisioa politikoa da eta ez baldin baditugu baldintzak sortzen transmisioa gerta dadin, ez da bere kabuz gertatuko, gurea ez baita osasun onean dagoen kultur ekosistema bat”. Musikariaren arabera, kontzientzia eduki behar dugu gure kulturaren egoeraz eta ahalduntze ariketa bat egin beharko genuke.

Nafarroan egindako saio horien bidez, musikagintzaren katebegi gisa kultur transmisioan eragiteaz gain, ikasleei erreferente berriak aurkeztu izana garrantzitsua da bi artistentzat. Osinagari gazteek eurek aitortu zioten leiho bat ireki ziela bere parte-hartzeak: “Ikusi zuten sortzaile izatea beste aukera bat dela. Umiltasun guztiarekin eta horrek suposatzen duen ardura guztiarekin aitortu behar diogu geure buruari erreferente izan gaitezkeela. Eta gazteek sinetsi behar dute sortzaile izan daitezkeela eta beren barrutik kontaktu dezaketela. Musikariok ere ahalduntze lan bat egin behar dugu, eta nahiz eta oso prekariora izan, gurea ere balio handiko lan bat dela aitortu behar diogu geure buruari”.

“Transmisioa ez da naturala, politikoa da eta ez baldin baditugu baldintzak sortzen transmisioa gerta dadin, ez da bere kabuz gertatuko”

Ines Osinaga

“Ikasleek motibazioa eta interesa azaldu zuten eta oso gustura eta sentsazio onarekin atera nintzen”

Zuriñe Hidalgo

Osinagak zabalduko leihotik sartzearabaki zuten Pedro Atarrabia ikastetxeko irakasle eta ikasleek, bertako irakasle Sara Lamelasen arabera, “oso esperientzia ona” izan baitzen DBHko 2. eta 4. mailako ikasleekin bizitakoa: “Saio hartan sortutakoa erronka bezala hartu genuen. Inesek abestutako kantua, *Dena aldatzen da*, ukelelez jotzen aritu ginen eskolan ondorengo egunetan, eta ikasturte bukaerako agur-ekitaldian kantu hori abestu genuen. Ikasleek go-goan izango dutela uste dut”. Parte-hartzaile guztiek bezala, Lamelasek ere ikasleen motibazioa nabarmendu du: “Ikasleak oso gustura eta Inesek zioen hartan buru-belarri murgilduta egon ziren. Askotan horrelako jardueren bitartez gehiago hurbiltzen gara ikasleen motibaziora eguneroko ekintzekin baino. Aurten ere errepikatu nahi dugun esperientzia da, ikasle gehiagorekin posible bada. Musika zuzenean entzutea, gela barruan izatea, izugarri estimatzeko moduko zerbait da”.

EUSKAL KULTUR SORKUNTZAREN TRANSMISIOA

SORMENEAN HEZI, KULTURAN BIZI

2019 · 10 · 19
BASAZABAL JAUREGIA
AZPEITIA

Informazio gehiago:
ueu.eus



EKARPENAK

TESTU-GENEROETAN OINARRITUTAKO METODOLOGIAREN ABENTURA

Zerrendatik fakturara eta e-mailetik menura

Joan zen udaldiaren hasieran, “Zerrendatik fakturara eta e-mailetik menura, testu-generoetan oinarritutako metodologiaren abentura” izeneko ikastaroa eskaini genuen Hik Hasiren Udako Topaketan, eta hainbat hizkuntza-irakasle (DBHkoak, helduen hizkuntza-irakaskuntzako askotariko erakundee-takoak...) elkartu ginen hiru saiotan, testu-generoetan oinarritutako metodologiaren gakoak aztertzeko eta praktikan jartzeko.

Testu-generoak egokiak dira komunikazio-egoera jakinetan testuinguruak, testu-egiturak, eduki tematiko zein linguistikoak... lantzeko, baina oraindik ez dira behar beste eta behar bezala erabiltzen hizkuntza-geletan. Egungo hezkuntza-markoari ondo baino hobeto lotzen zaion metodologia da testu-generoetan oinarritutako metodologia, eta horregatik izan



MIREN IBARLUZEA ETA MARI MAR BOILLOS

EHUko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saileko irakasleak

genuen hizpide Donostiako saioetan. Metodologiaren inguruko gogoeta ez genuen maila teorikoan soilik landu, oinarri eta irizpideak praktikan jartzeko aukera izan genuen: metodologia hori berori hautatu genuen saioak antolatzeko, eta egoerari lotutako genero diskurtsibo jakin batzuk sortu zituzten ikastaroko partaideek. Hain zuzen ere, metodologiaren oinarriei buruzko dekalogo bat, *abstract* bat eta *podcast*-saio bat ekoitzi zituzten, euren lanetan aurki ditzaketen egoera komunikatiboetara erantzuteko; horrez gain, ikastaroko partaideek euren eskoletara eramateko sekuentzia didaktikoak diseinatu zituzten taldeka,

eta horien berri eman zuten azken saioan.

Ikastarora joan ezin izan zirenek han ikusi, irakurri eta entzundakoen inguruko pilula txiki bat eskura izan dezaten, testu-generoetan oinarritutako metodologiaren gakoak azaltzeko saioa egingo dugu, *hik hasi* aldizkariak eskaini digun tarte honetan. Batetik, oinarritzko kontzeptuak kokatzeko azalpenak emango ditugu: batez ere, metodologiaren jatorriaz, genero diskurtsiboak eta tipologiak bereizi beharraz, eta genero diskurtsiboaren definizioaz eta lanketaz ariko gara. Bestetik, hizpide dugun metodologiaren nolakotasunak eka-

riko ditugu, eta EAEko gaur egungo hezkuntza-markoarekin bat egiten dutela ikusteko arrazoiak emango ditugu.

Genero diskurtsiboak eta testu-generoetan oinarritutako irakaskuntza, zer ote?

Testu-generoetan oinarritutako irakaskuntzaren ardatza genero diskurtsiboak dira. Eskola askok jarraitzen diote ildo horri, besteak beste, Sydneyko eskolak, Genevako eskolak edo ikasketa erretorikoek (*Rhetorical Genre Studies*). Eskola guztien garrantzia aitortu arren, Sydneyko eskolaren premisak hartuko ditugu hizpide eta oinarri, hemen.

Tradizioz, genero diskurtsiboen eta testu-tipologiaren arteko ezberdintasunak ez dira argi zehaztu, eta gaiari buruzko bibliografian erabilitako terminologia aldatzen joan da (Corbacho, 2006). Gauzak horrela, metodologiaren muina ulertzeko, ezinbestekoa da, ezer baino lehen, *testu-genero* hitzaren esanahia ezagutzea.

Oro har, *genero* zein *testu-genero* terminoak erabili izan dira eta erabiltzen dira *genero diskurtsiboei* buruz hitz egiteko (*genero*, *testu-genero* zein *genero diskurtsibo* terminoak erabiliko ditugu, baina jakin bedi termino zehatzena *genero diskurtsiboa* dela). *Generoa* antzinatek erabilitako hitza den arren, gaur egun erabiltzen dugun esanahia ez zen 1979. urtera arte eraiki. Bakhtin formalista errusiarrari zor diogu termino hori ulertzeko modu berritzailea; izan ere, Bakhtinek bere ikerketetan planteatzen du generoak hiztunen komunitate bakoitzeko “gizarte-jarduerarako esferak” direla. Bestela esanik, Bakhtinek dio erabilera-esparru bakoitzean (akademikoa, lagunartekoa, etab.) genero-errepertorio mugagabe bat dagoela komunikazio-egoeren mende.

Ekarpen horrek aldatu egin zuen ordura arteko testuak ulertzeko ikuspegia, eta jarraitzaile asko izan zituen. Urte batzuk geroago, Swales-ek (1990) Bakhtinen planteamendua hartu zuen berriro, eta generoen izaera historikoa eta kulturala azpimarratu nahi izan zuen: genero berriak sortzen direla agertu, eta hizkuntza

ezberdinetan ekoiztutako genero berdinen arteko aldeak ulertzeko bideak ireki zituen.

Planteamendu hori bat dator Hallyday-k (1978) defendatutakoarekin, hark uste baitzuen testuinguru soziala ahozko eta idatzizko testuak sortzen dituen espazioa dela. Hallydayen esanetan, hizkuntzak hiru funtzio nagusi ditu: hiztunen arteko harremanak onartzea, haien esperientzia soziala eraikitzea eta diskurtso esanguratsuak eraikitzea.

Generoei buruz ari garenean, beraz, forma diskurtsibo estereotipatuari buruz ari gara. Genero diskurtsiboak testu idatziak (e-maila, kontratua, faktura...), ahozkoak (*podcasta*, ahozko elkarrizketa, etab.) edo multimodalak (mistoak: powerpoint audioduna...) izan daitezke. Erabilerak finkatzen ditu generoak, eta egonkor mantentzen dira egoera komunikatibo beretan (iragarkiak, albisteak, etab.). Genero diskurtsibo bereko testuak hiztunen komunitate jakin batean garatu dira, esparru sozial edo profesionalean. Horrekin batera, funtsezkoa da komunitatearen garrantzia azpimarratzea, komunitateko partaideek generoak identifikatzen eta ekoizten baitituzte. Beraz, giza-banakoak hizkuntzaren erabiltzaile gisa duen ideiatik harago doa genero diskurtsiboa: gizarte osoak partekatutako portaera-eredua da (Cervantes Institutua, 2019).

Generoak aldatu eta garatu egiten

dira, gizarte-aldaketei erantzuteko. Horregatik, genero berriak agertzen dira (berriki agertutakoak dira, adibidez, txatak, foroak edo mezu elektronikoak). Denborari ez eze, kulturari ere badagokio aldakortasuna: pentsa dezagun, adibidez, *abstract* zientifikoetan; bada, genero horren ezaugarriak aldatu egiten dira kultura zientifiko baten hizkuntza batetik bestera. Hala, *abstracta* ingelesez idatzi edo gaztelaniaz idatzi, adibidez, aldatu egiten da, ez soilik hizkuntzari dagokionez, baita testuaren egiturari dagokionez ere. Beraz, hizkuntza menperatzeaz gain, genero horren berezitasunak ere ikasi beharko ditugu (Martín, 2002, beste askoren artean).

Era berean, genero bereko testuak informazioa eta hizkuntza-baliabideen multzo bera (erregistroa, fra-seologia, etab.) partekatzen dituzte. Hala, genero bereko testuak ekoizten ditugunean, ohikoa da generoari buruzko ezagutza linguistikoak eta ezagutza diskurtsibo tipikoak erabiltzea; alegia, generoa estandarizatzen duten ezaugarriak, tradizioak ezarritakoak, erabiltzea. Izan ere, genero bereko testuak helburuak eta gaiak partekatzen dituzte, eta egitura, gramatika eta hiztegi espezifikoaren arabera idazten dira.

Esate baterako, pertsona batek, kexa-eskutitz bat idaztean, kontuan izango ditu honako hauek: a) Norentzat da eskutitza?, b) Zer helburu du eskutitzak?, c) Zein dira mota horre-



Testu-generoetan oinarritutako irakaskuntzak zentzua duten egoerak proposatzen dizkie ikasleei: irakasleek aukeratzen dituzten generoak ikasleen beharrekin lotuta daude.

tako testuen ezaugarri prototipikoak?, d) Zer errepertorio linguistiko erabili behar dut?

Laburbilduz, esan daiteke genero diskurtsiboak identifikatu egin daitezkeela, baina, aldi berean, idazle edo hiztunaren arabera eta egoeraren, une historikoaren eta ingurune sozialaren eta instituzionalaren arabera aldatzen direla (Navarro, 2018). Hori dela eta, generoak sailkatu izan direnean, sailkapenak aldakortasuna eragiten duten elementuen arabera eraiki dira, eta, adibidez, kultura jakin batean erabilera-esparruaren arabera antolatutako generoen taulak eskaini izan dira.

Baina, esan bezala, *genero diskurtsiboak* tradizionalki tipologiekin nahastu izan dira. Aitzitik, *tipologia* edo *testu-tipo* deritzegu testuak sailkatzeko moduei. Ugariak dira testu-tipologietan egin diren sailkapenak. Werlichek (1976), adibidez, bost testu mota aipatu zituen: deskribatzaileak, narratiboak, azalpenekoak, argudiozkoak eta instrukziozkoak. Generoak ez bezala, kultura batetik bestera aldaezinak dira testu-tipoak, eta egonkor mantentzen dira denboraren joanean. Gainera, genero bakar batean, testu tipologia bat baino gehiago azaldu daiteke; esate baterako, ipuin batean, pasarte deskriptiboak, narratiboak eta bestelakoak ager daitezke.

Testu-generoetan oinarritutako irakaskuntza: metodologiaren muina
Sydneyko eskolan, dagokion ikuspegi sozialetik ulertzen da generoa, eta

ez dagokion dimentsio linguistiko edo kognitibotik. Hylandek (2007) dioenez, horrek erraztu egiten du generoaren ikuspegia hizkuntzen pedagogiaren esparrura eramatea eta irakaskuntzako estrategia ugari sortzen laguntzea.

Sydneyko eskolak generoetan oinarritutako eredu pedagogiko bat proposatzen du, hiru fasetan antolatutakoa (Rose eta Martin, 2012):

1. Dekonstrukzioa: fase honetan, irakasleak genero jakin baten ereduak eskaintzen dizkie ikasleei, eta egoerak sortzen ditu genero horren askotariko mailetako ezaugarriak identifikatzeko.
2. Elkarren arteko eraikuntza: fase honetan, era kooperatiboan eta irakaslearen gidaritzarekin, ikasleek aurreko fasean ikasitakoa aplikatu behar dute, behar komunikatibo bati aurre egiteko.
3. Eraikuntza independentea: ikasleak jada eskuratu dituen erremintak baliatzen ditu, eta jakintza berriak martxan jartzen ditu, erronka bati aurre egiteko eta horretarako genero jakin bat sortzeko.

Begi-bistakoa da Sydneyko eskolaren eredu horrek bat egiten duela Vygotsky-ren (1978) aldamioren nozioekin eta Garapen Hurbileko Eremuarekin.

Fase horiek guztiak gauzatzeko, irakasleak alde aurretik aztertu behar ditu landu nahi dituen generoak, testu-generoetan oinarritutako irakaskuntzaren arabera: ezaugarri konbentzionalak, diskurtsoaren bereizitasunak, bestelako ezaugarri bereizgarriak eta egoera komunikatiboaren xehetasun guztiak. Hizkuntza gehigarriak irakasteko orduan, beharrezkoa izango da kulturak zehazten dituen nolakotasunak ere kontuan hartzea .

Testu-generoetan oinarritutako irakaskuntza, gaur egungo hezkuntza-ikuspegiekin bat

Testu-generoetan oinarritutako metodologiak funtsezko zenbait ezaugarri integratzeko aukera ematen du; esan genezake esanguratsua, artikulatua,

soziokonstruktibista, parte-hartzailea, kritikoa eta esplizitua dela (Navarro, 2018).

Metodologia honen bidez ikasketa esanguratsua gertatzen dela esaten dugu, ez edukiak eta trebetasunak lantzea ahalbidetzen duelako soilik; hori diogu, halaber, testuinguru jakinei lotutako helburuetara eta egokitasunetara bideratuta dagoelako. Izan ere, zentzua duten egoerak proposatzen zaizkie ikasleei irakaskuntzarako: irakasleek aukeratzen dituzten generoak ikasleen beharrekin lotuta daude, eta errealak dira sortzen diren testuinguruan. Beraz, ikasleak trebatu egiten ditu beharizan komunikatibo aurre egiteko, eta ikasleek erraz egin ditzakete loturak ingurunearekin. Dolz-ek aldizkari honetako elkarriketa batean (1998) esan zuenez:

Zergatik dira garrantzitsuak generoak hizkuntza baten irakaskuntzan?

Ikasleentzat esanahia duen irakaskuntza errazten duen lan-unitatea delako. Komunikazio-egoera adierazten du, testua bere osotasunean lantzen da, eta funtzio baten arabera. Horregatik ematen diot garrantzia hasiera-hasieratik. Ahozko eta idatzizko adierazpena lantzean tresnatzat hartzen dugun lan-unitatea generoa da. Zergatik? Haurrek berehala ezagutzen dituztelako generoak. Testuak izendatzerakoan, generoen izenak erabiltzen ditu gizarteak, eta haurrek ere ikasi egiten dituzte. Hau eztabaida, ipuina, eleberria, olerkia edota elkarriketa da, esaten da gizarte mailan.

Esanguratsutasunak metodologiaren oinarri soziokonstruktibistan du abiapuntua, eta testu-generoetan oinarritutako irakaskuntza soziokonstruktibista dela diogu irakaskuntza-eredu honetan ez zaiolako ikasleari agintzen, adibidez, behar bezala idazteko txantiloitxi bat. Aitzitik, ikasleari estrategiak irakasten zaizkio, egoeren arabera beti aldakorrak diren hartzaile, testuinguru eta helburuak ulertzeko. Modu horretan, ikasleak genero jakin baten ezaugarriak identifikatzen, eztabaidatzen, lantzen eta barneratzen ditu.

Hori guztia dela eta, esan dezakegu metodologia esplizitua dela. Irakasleak ikaskuntza-prozesuak bultzatzen, gidatzen eta modelatzen ditu une oro, teorikoki sendoak diren proposamen pedagogikoen bidez. Horrekin batera, esan dezakegu metodologia artikulatua dela, esplizituki adierazten baita nolako harremanak dauden generoak definitzen dituzten berariazko ezaugarrien eta orokorren artean, eta zer-nolako aldeak dauden generoen artean. Horrek erraztu egiten du jakintzen transferentzia.

Era berean, metodologia parte-hartzailea dela esan dezakegu, ikasleek erakundearen, prestakuntzaren eta diziplinaren berezko praktikak eta ekimenak egitea sustatzen delako; esaterako, irakasleekin elkarrizketak egitea edo ikaslearen inguruko errealitatea ikertzea. Horrez gain, metodologia honen sekuentziazio-faseetan proposatzen diren jarduerak zein ekoizpen independenteak modu kooperatiboan egiteko aukera dago. Errealitatearekin sortzen den harremanak ahalbidetzen du metodologiaren ikuspegi kritikoa Bakhtinek proposatutako esferen komunikazio-praktikek erakusten dutelako generoak naturalak eta aldakorrek direla, ez dagoela nagusitasunik euren artean eta tentsioan, aldakor eta batzuetan kontraesanean daudela. Testuinguru horretan, irakaslearen rola irakaskuntza gidatzea da, eta ikaslea da bere ikaskuntza-prozesuaren funtsezko pieza.

Generoetan oinarritutako metodologia EAEko hezkuntza-testuinguruan
Orain arteko horiek guztiak kontuan harturik, genero diskurtsiboetan oinarritutako irakaskuntza bat dator gaur egungo hezkuntza-markoak ezartzen dituen jarraibideekin. Izan ere, bat egiten du 236/2015 Dekretuan eta 237/2015 Dekretuan zehazten diren Hizkuntzen Trataera Bateratuaren printzipioekin. Hauexek dira printzipiook: inklusioa (soziala eta linguistikoa), hizkuntza-aniztasunarekiko eta beste hizkuntza batzuetako hiztunekiko balio eta jarrera positiboa, komunikazioa lehenestea, eta hizkuntzak modu errealean erabiltzeko espazioak sortzea eta sustatzea.



Inklusiorako tresna da testu-generoetan oinarritutako irakaskuntza. Urteetan zehar egindako ikerketek erakutsi dutenez (Rose, 2018), testu-generoetan oinarritutako irakaskuntzaren bidez, ikasgela bereko haur guztiak egiten dute aurrera, zailtasunak dituzten ikasleek barne, eta, gainera, hezkuntzan lorpen mailen arteko aldea gutxitzea ahalbidetzen du metodologia honek. Halaber, inklusioa da ikasle guztien parte-hartzea sustatzen delako eta metodologia honi jarraituta ikasgelan lantzeko proposatzen diren genero diskurtsiboak eta horiek lantzeko egoera komunikatiboak ikasleen beharriaz abiatzen direlako.

Hizkuntza-aniztasuna balioesteko eta hari buruzko gogoeta egiteko zein kudeatzeko baliagarria da, oso, testu-generoetan oinarritutako irakaskuntza. Hizkuntzen Trataera Bateratuaren oinarrietako bat da jakintzen transferentzia modu eraginkorrean eta onuragarrian baliatzea, bai eta gogoeta metalinguistikoa sustatzea ere. Bada, horretarako bidea ematen du, zalantzarik gabe, metodologia honek, lehenago esan dugun moduan. Testu-generoen ezaugarri batzuk kultura batzuetatik besteetara transferi daitezke; beste batzuk, ostera, kultura jakin bati lotzen zaizkio. Bada, berariazko lanketak posible egiten du ikasleek hizkuntzen arteko berdintasunak eta ezberdintasunak ikustea (Sagasta eta Sainz, 2003). Ildo horretan, ikastetxeetako hizkuntza-aniztasunaren planifikazioaren ikuspegitik, askoz ekonomikoagoa da

beste hizkuntzetan egindakoa erabiltzea hizkuntza berri bateko edukiak ikasteko. Baina ez hori bakarrik, ezin baita ahaztu edukiak eta hizkuntzak era berean lantzeak ere transferentzia ahalbidetzen duela: hala, testu-generoetan oinarritutako irakaskuntzaren ikuspegi hizkuntzako irakasgaietatik kanpokoetara ere eramaten bada, hizkuntzako edukiak eta eduki tematikoak landuko ditugu era berean. Hain zuzen ere, horixe nabarmentzen du ikastetxeko hizkuntza-proiektuak egiteko EAEko gidak, testu-generoen bidezko metodologiak ez diola eragiten soilik hizkuntza-arloei azaltzen duenean, bestelako ikasgaietan berariaz erabiltzen direlako testu-genero jakin batzuk, eta hori horrela, hezitzaile guztiak direla hizkuntza-irakasle. Zehazki, hauxe dio, gainera: “arlo edo ikasgaietan jorratzen diren testuen ulermen eta ekoizpenen irakaskuntza eta haien ebaluazioa modu integratuan egiteak hobetu egiten du ikasleen kompetentzia maila arlo horietan” (Eusko Jaurlaritzak, 2016: 152). Horretarako, noski, berebizikoa da koordinazioa eta metodologia bateratua erabiltzea, bai ikasgai batetik bestera, bai etapaz etapa (Sagasta eta Etxeberria, 2008). Bada, ezagun da testu-generoetan oinarritutako irakaskuntza aplikagarri dela Haur Hezkuntzatik Unibertsitate arteko irakaskuntzan, eta horren frogara Euskal Herrian bertan egin diren hainbat eta hainbat ikerketa eta inplementazio-saio. Izan ere, lehenago esan bezala, testu-generoak ikasleen beharriaren arabera hauta-

Testua da langaia, eta testuaren askotariko ezaugarriak lantzen dira. Hori da egungo hezkuntza-markoak komunikazio- eta hizkuntza-kompetentzia lantzeko eskatzen duena.

tzen dira, eta Haur Hezkuntzan etxera eramateko oharra zein ipuina izan daiteke langai, eta unibertsitatean, txosten zientifiko bat, esaterako.

Komunikazioa du ardatz testu-generoetan oinarritutako irakaskuntzak. Hain zuzen ere, egoera komunikatiboa du ardatz, eta komunikazioan oinarritzen dira sekuentzian zehar egiten diren gainerako jarduerak ere. Ildo horretan, gaur egungo hezkuntza-markoarekin bat, egokia da kompetentziak lantzeko. Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza hobetzeko planak (Heziberri 2020 planak, alegia) kompetentzietan oinarritutako hezkuntza-eredua du oinarri, eta, hizkuntza-kompetentziari dagokionez, Europako Kontseiluak emandako Hizkuntzen Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoaren bidetik jotzen du. Marko horren arabera, hizkuntza bat ikastea hizkuntza horretan komunikatzen ikastea da, eta, hortaz, ikuspegi horren arabera antolatu beharrekoak dira hizkuntza-irakaskuntza-prozesua, materialak, azterketak etab. komunikatzeko estrategiak arian-arian gara ditzan ikasleak. Ekintzara bideratutako hezkuntza-ikuspegia du oinarrian Europako Erreferentzia Markoak, eta hizkuntza-erabiltzaileek garatu beharreko eduki edo tresna linguistiko-komunikatiboak zehazten ditu, hizkuntza-edukiei dagozkienak, soziolinguistikari dagozkionak eta pragmatikari dagozkionak.

Beraz, hizkuntza-edukiak ez eze, tokian tokiko hizkuntzaren egoerari

buruzko komunikazioa egokia izan dadin moldatu beharreko ezaugarri diskurtsiboak ere kontuan hartu behar dira hizkuntzen irakaskuntzan. Bada, horrekin guztiarekin bat egiten du testu-generoetan oinarritutako metodologiak, eta gurean inplementatzeko modukoa da, hain zuzen ere, egoera komunikatibotik abiatzen delako (dagokion gizartean eta beharren arabera kokatzen da beti testua), egoera komunikatibo bati erantzun behar zaiolako eduki jakin batzuk baliatuta (ikasleek, beraz, komunikatzeko darabilte ekoizten duten oro), testuaren egitura eta paratestua aztertze bidea ematen duelako eta testuaren baitako hizkuntza edukiak ere landu daitezkeelako. Boillosek ondo laburbiltzen duenez, testu-generoetan oinarritutako irakaskuntzaren azken xedea da ikasleek euren jakintzak modu estrategikoan baliatzea genero diskurtsiboetatik abiatuta zeharkako hizkuntza-jakintzak eskuratzeko (Boillos, 2017).

Hain zuzen ere, hizkuntzaren erabilera bermatzeko egiten dira metodologia honetan oinarritutako sekuentzia didaktikoak, dagozkien dekonstruzio eta eraikuntza gidatu eta independenteko jardueren bidez. Hala, hizkuntza-jarduerak modu horretan planteatzeak bat egiten du Eusko Jaurlaritzaren *Hizkuntza Proiektuaren Gidan* zehazten denarekin, eskolako jardunek komunikazio-proiektu bihurtu behar dutela zehazten delako gidan (Eusko Jaurlaritza, 2016). Komunikazio-proiektuen errealizazioa testu-genero jakin batzuk direla ulertuta, hortaz,

“hizkuntza-trebetasun guztiak lantzeko jarduerak proposatzen dira; beraz, proiektuek ahozko eta idatzizko hizkuntza lantzeko aukera ematen dute, eta edozein testu proposa daiteke azken ekoizpen gisa”. Halaber, “ulermen- eta ekoizpen-prozesuei lotutako lan koherentea ahalbidetzen dute proiektuek, ulermena hobetzeak ekoizpena hobetzea dakarrelako, eta alderantziz”, eta, horrez gain, prozedurazko, kontzeptuzko zein jarrerazko edukiak lantzen dira. Berariaz aipatzen dira testu-generoak hizkuntza-proiektua egiteko gidan, nahiz eta artikulua honen hasieran aipatutako termino-dantza ere ageri den: “Testu-tipologiak honetan laguntzen du: testu-generoen aniztasuna hizkuntza guztietan antolatzen, sailkatzen eta hautatzen. Testu-generoak sailkatzeko eta hautatzeko, ikasleen komunikazio-beharrei eta generoen erabilera-eremuei erreparatuko zaie” (Eusko Jaurlaritza, 2016: 147-148).

Hizkuntzen Tratarera Bateratuaren azken printzipioa hizkuntzak lantzeko egoera errealak baliatzea da. Lehenago ere azaldu dugu testu-generoetan oinarritutako irakaskuntzarako ikaslearen testuingurua hartzen dela kontuan, eta ez zaiola txantilo itxirik ematen, ez ekoizpenerako, ez eta testu-generoaren inguruko ikerketa egiteko ere. Ildo horretan, inguruan eskura dituen testu-errealak baliatuko ditu ikasleak. Horrez gainera, ikasleari dagokion garaiko eta gizarteko testu-generoak emango zaizkio lantzerako. Horri dagokionez ere, testu-generoetan oinarritutako irakaskuntzak bat egiten du gaur



egun indarrean dugun irakaskuntza-markoarekin.

Labur esanik, beraz, komunikazio-egoera jakin bat da ikasteko jardueren ardatza testu-generoetan oinarritutako irakaskuntzan; testua da langaia, eta testuaren askotariko ezaugarriak lantzen dira, betiere ikaslearen beharrei lotutako helburuei aurre egiteko. Sekuentzian zehar ikasitako eduki tematiko zein hizkuntzakako artikulatu eta aplikatu egiten dituzte ikasleek, irakaslea gidari dutela, eta hori da, azken batean, gaur egungo hezkuntza-markoak komunikazio-kompetentzia eta hizkuntza-kompetentzia lantzeko eskatzen duena (ikus, antzeko laburpen baterako, Euskal Herriko Ikastolen Federazioa, 2009).

Azken hitzak

Metodologia honen aplikazio-onuren inguruko hainbat ikerketa badira gurean, (Genevako eskolari jarraikiz egindako lanak dira gehientsuenak; ikusi, esaterako, EHUko Elebilab ikerketa-taldearenak, edota M. Sainzek eta M. Bilbatuak egindako lanak, gutxi batzuk aipatzearen), eta hasi dira Berritzeguneetatik zein testuliburuaren argitaletxe batzuetatik proposamen didaktikoak plazaratzen. Alabaina, agerikoa da zabalkunde eta trebakuntza gehiago behar direla irakasleak metodologia honen onurez jabetzeko. Hala adierazi zuten, esaterako, Hik Hasiren topaketetan bidelagun izan genituen ikastaroko partaideek: metodologia hau zertan den jakinik, gehiago trebatu nahiko luketela sekuentzien sorkuntzan eta inplementazio-estrategietan; horixe adierazi zuten haietako askok.

Bada, ikastaroko partaideen hitzak ekarri nahi genituzke berriz ere, hemen esandako guztiak ixteko. Ikastarora hasi baino lehen “Testu-generoetan oinarritutako metodologia” entzutean burura etorritako hitzak botatzeko proposamenari honela erantzun zioten partaideek: “jakin nahia”, “irakurketa”, “idazketa”, “doitasuna”, “koordinazioa”, “testuen ugaritasuna”, “funtzio-aniztasuna”, “errealitatea”, “testuingurua”, “praktikotasuna”, “berrikuntza”, “erabilgarritasuna”, “komunikazio-

egoerak”, “komunikazio-beharrak”, “arlotan eta hizkuntzetan sakontzea”, “hezkuntza integrala”, “hezkuntza integratua”. Hasierako ideietan intuizio oso onez ari ziren irakasleak (eta seguru gaude hala dabilzala hor zehar beste hainbat eta hainbat irakasle ere).

Trebatze-saioak bukatutakoan ariketa bera egiteko eskatuta, intuitiotik esperientziarako bidean zehaztasunera egin zutelakoan gaude: “eraginkortasuna”, “baliabide ona”, “sekuentzia didaktikoak diseinatzeko malgutasuna”, “ikasketa esanguratsua”, “talde-lana”, “etengabeko ebaluazioa”, “ikasitakoa beste gai batzuetara transferitzea”, “planifikazioa”, “komunikazio-gaitasuna garatzea”, “irakaslearen planifikazioa”, “sistematizazioa”, “ikaslearen beharrak”, “ataza” eta “sekuentzia didaktikoa” agertu baitziren, besteak beste. Horiek guztiak, hasierako zein bukaerako, mintzagai darabilgun metodologiaren gakoak dira, eta, hortaz, ikastarora etorritako irakaslearen ideia-jasak laburbiltzen du hiru saiotan testu-generoetan oinarritutako metodologiaren inguruan irakats eta ikas daitekeena.

Erreferentziak

- BAKHTIN, M.: “El problema de los géneros discursivos”, in *Estética de la creación verbal*, Siglo X, Mexiko, 1979.
- CORBACHO, A.: “Textos, tipos de texto y textos especializados”, in *Revista de Filología*, 24, (2006), 77-90.
- DOLZ, J.: “Bizitzan zehar oso garrantzitsua da generoak menperatzea”, in *Hik Hasi*, 1998-04-01. <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/19980401/dolz-joaquim-generoak-eta-sekuentziarioa-hizkuntza-arloko-curriculumean>
- EUROPAKO KONTSEILUA: Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa, 2001. http://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/oinarriak/eu_9716/adjuntos/europako_markoa.pdf
- EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA: Ikastolen Hizkuntz Proiektua. Ikastolen Konfederazioa, 2009 <https://www.ikastola.eus/sites/default/files/page/5167/file/ikastolen%20Hizkuntz%20Proiektua.pdf>
- EUSKO JAURLARITZA, HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA: Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua egiteko gida, 2016, [\[tza_proiektua/5002016001e_Pub_EJ_gida_hizpro_e.pdf\]\(https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/hizkuntza_proiektua/5002016001e_Pub_EJ_gida_hizpro_e.pdf\)](https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/hizkun-

</div>
<div data-bbox=)

- HALLIDAY, M. A. K.: *Language as Social Semiotic. The Social Interpretation of Language and Meaning*, Edward Arnold, Londres, 1978.
- HYLAND, K.: “Genre pedagogy: Language, literacy and L2 writing instruction”, in *Journal of Second Language Writing*, 16, (2007), 148-164.
- INSTITUTO CERVANTES: Diccionario de términos clave de ELE, 2019, https://cvc.cervantes.es/ENSENANZA/biblioteca_ele/diccionario/default.htm
- MARTÍN, P. A.: “A genre-based investigation of abstract writing in English and Spanish”, in *Revista Canaria de Estudios Ingleses*, 44, (2002), 47-67.
- NAVARRO, F.: “Didáctica basada en géneros discursivos para la lectura, escritura y oralidad disciplinares”, in F. Navarro eta L. Mari (arg.), *Manual de lectura, escritura y oralidad en economía y administración* (11-21 or.). Bernal, Universidad Nacional de Quilmes, 2018.
- ROSE, D.: “Languages of Schooling: embedding literacy learning with genre-based pedagogy”, in *EuJAL*, 6(1), (2018), 59-89.
- ROSE, D., eta MARTÍN, J. R.: *Learning to write, reading to learn: genre, knowledge and pedagogy in the Sydney School*, Equinox, UTH Yorkshire, Bristol, 2012.
- SAGASTA ERRASTI, M. P., eta SAINZ OSINAGA, M.: “La gestión del proyecto lingüístico de centro desde una perspectiva ecológica”, in Perera, J. (arg.). *Plurilingüisme i educació: els reptes del segle XXI*, ICE, Barcelona, 2003.
- SAGASTA ERRASTI, M. P., eta ETXEBERRIA AZKARRETAZABALA, L.: “¿Qué transfieren los alumnos al castellano cuando el aprendizaje lo realizan en euskara?”, in Monroy Casas, R. et al. (koord.) *25 años de lingüística en España: hitos y retos* (2008) 171-178, <https://www.um.es/lacell/aesla/contenido/pdf/1/sagasta.pdf>
- SWALES, J.: *Genre Analysis. English in Academic and Research Settings*. Cambridge University Press, Cambridge, 1996.
- VYGOTSKY, L.: *Pensamiento y lenguaje*, Paidós Madril, 1978.
- WERLICH, E.: *Typologie der Texte*, Fink, Munich, 1975.
- 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600141e.pdf>
- 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.shtml>

GALDEIDAZU

ERGONOMIA ESKOLAN: ONGI ESERTZEN AL DIRA HAURRAK ESKOLA-ORDUETAN?

Ergonomia ez da kontuan hartzen esparru asko eta askotan. Baina zer da ergonomia? Ergonomiak pertsonen eta pertsonen erabiltzen dituzten elementuen arteko erlazioa aztertzen duela esan dezakegu. Mugitzen ari garen lekuan guregan eragina duten baldintzak aztertzen ditu: baldintza fisikoak, kognitiboak, antolamenduari dagozkionak eta ingurumenekoak. Giza ongizatea sustatzea eta pertsonak dagoen inguruan errendimendu optimoa lortzea ditu helburu.

Oraingoan, eskolaren esparruan zer-nolako garrantzia duen aztertuko dugu; faktore fisikoak hartuko ditugu kontuan bereziki, eta gorputz-jarreraren heziketan edo higieanean eta ikasleen kolektiboan zentratuko gara.

Gure ikasleek ordu asko igarotzen dituzte eskolan, eserita horietako gehienak. Hazteko garaian daudela eta haien gorputzak aldatzen eta hazten ari direla kontuan hartuta, garrantzitsua da normalean zer jarreratan egon ohi diren adi aztertzea. Energia minimoarekin eraginkortasun handiena lortzeko aukera ematen duena da jarrera zuzena (ahalik eta tentsio edo zurruntasun gutxienarekin, gainkargak saihesteko). Prebentziorako, garrantzitsua da gorputz-jarreraren hezkuntza (eta higienea) kontuan hartzea, haurren eta nerabeen osasuna zaintzeko; lesioak saihesten eta



CARLOS CASAL

Stretching Global Activoko irakaslea



murrizten laguntzen du, batez ere giltzaduretakoak eta bizkarrekoak, eta legearen esparruan ere, hezkuntzako curriculumetan irakasgai gisa txertatu behar litzatekeela adierazi da. Adibidez, 175/2007 Dekretuan, urriaren 16koan, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz ezartzekoan (EHAA – 2007ko azaroak 13 – 26035), besteak beste, DBHn Gorputz Hezkuntzako helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak ezartzen dira. Honako hau dago jasota hitzez hitz:

- “Gorputz-postura egokien ariketak lantzea, jarduera fisikoak egitean eta eguneroko bizitzako egoeretan (eserita egotea, zama igotzea, bizkar-zorroak eramatea...)”
- “Eguneroko jardueretan jarrera egokia hartzea duen garrantzia aitortzea eta balioestea.”
- “Jarrera-ohitura desegokiak aztertzea, eta horiek zuzentzea.”

Nire ustez, jarreraren higienea ez da gorputz-hezkuntzaren esparruan soilik landu behar. Irakasgai horrekin duen harremana zuzentzea eta argia izan arren, zeharkako irakasgai gisa hartu behar litzateke kontuan, garrantzitsua baita gorputz-hezkuntzako geletatik kanpo ere esertzerakoan, bizkar-zorroak eramatean, ordenagailua erabiltzean eta beste hainbat unetan geureganatu ditzakegun ohiturak kontrolatzea.

Beharbada, informazio eta prestakuntza falta sumatzen da gai honen inguruan, baita eskola-esparrutik harago ere. Gizartean, oro har, ez zaio ia garrantzirik ematen osasuna izateko prestakuntzari eta prebentzioari, eta patologiaren bat edota deseroso sentiarazten gaituen sintomaren bat dugunean gogoratzen gara horretaz. Ikuspegi global eta integratzaile batetik, gomendagarriagoa da osasunari eusten saiatzea, eta ez sintomak agertu arte zain egotea, zerbait egiten hasteko.

Zentzu horretan, garrantzitsua da hezkuntza-elkarte osoaren parte-hartzea: irakasleena, ikastetxeetako kudeatzaile eta zuzendariena, Hezkuntza Sailarena, gurasoena eta ikasleena. Guztiek jaso behar lukete prebentzioari eta jarreraren higieneari buruzko prestakuntza, eta norabide berean lan egiteko konpromisoa hartu behar lukete guztiek.

Arrisku-faktoreak eta soluzioak

Eskolaren esparruan, lau arrisku-faktore nagusi nabarmenduko nituzke jarrerari dagokionez:

1. Denbora luzean jarrera estatikoak izatea.
2. Altzari egokien falta (aulkiak eta mahaia bereziki).
3. Gehiegizko pisua duten bizkarzorroak.
4. Lehia biziko kirol-jarduerak.

Hona hemen ideia praktikoa eta hobetzeko jarraibide batzuk:

- Jarrera-aldaketak sustatzea, ahal den neurrian.
- Eserita edo ordenagailu aurrean denbora luzean ez egotea.
- Kontuan hartzea aulkiak eta mahaia egokitu egin behar direla. Altuera erregulatzeko aukera ematen duten eskola-altzariak dira onenak, altuera desberdinetako pertsoneri jarrera zuzena hartzen laguntzeko


Eskolako jarduerak egiterakoan, eserita egon gaitezke denbora luzez, patologia muskuloeskeletikoak sortzeko arriskurik gabe; gure gorputzaren eta buruaren pisua ahalik eta esfortzu txikiarekin ezarriko dugu oinarri egonkor batean, bizkarrezurra ondo dugula ziurtatuz. Horretarako, kontuan izan behar ditugu honako alderdi hauek:

- Bi oinak lurrian edota beste azalera egonkor eta zabal batean (ez aulkien barretan) ezarri behar dira.
- Iskion hezurak (pelbisaren beheko aldean dauden hezurak; horien gainean esertzen gara) ongi bermatu behar dira, eta gure bizkarrezurraren kurbadura fisiologikoak berezko jarreraren daudela ziurtatu behar dugu.
- Lanak mahaian egiterakoan,

Gure ikasleek ordu asko igarotzen dituzte eskolan, eserita horietako gehienak. Hazteko garaian daudela eta haien gorputzak aldatzen eta hazten ari direla kontuan hartuta, garrantzitsua da normalean zer jarreratan egon ohi diren adi aztertzea. Energia minimoarekin eraginkortasun handiena lortzeko aukera ematen duena da jarrera zuzena.

aulkiak apur bat aurrera inklinatuta egon behar du. Aulkiak, laua bada, okerreko norabidean behartzen du gerriaren kurbadura, eta epe laburrean, minak sortzen ditu, eta patologia bilakatzen dira horiek.

- Gure aldaka belaunen gainetik egoteko adinako altuera izan behar du aulkiak.
- Mahaia altuerari dagokionez, kontuan hartu behar dugu gure besoak erlaxatuta uzten ditugunean gure sorbaldek ez



Ondo eserita.



Gaizki eserita.

Bizkar-zorroei dagokienez, nerabe gehienek eraman ohi dituzten bizkar-zorroek erraz gainditzen dituzte osasun-agintarien gomendioak. DBHn hasiera doan ikasle batek, 40 kg inguru pisatzen duenak, ez luke gainean eraman behar 4 kg baino gehiago pisatzen duen bizkar-zorrorik. Gurpildun bizkar-zorroak ere ez dira behin betiko irtenbidea, pisua bizkarrean eraman beharrean lurtean arrastaka eramaten baitugu, gorputzaren atzetik sarritan, sorbalda behartuz eta bizkarrezurra bihurtuz.

dutela goian gelditu behar.

- Ahal izanez gero, lanerako mahaiaren planoak inklinatzeko aukera izan behar luke, lana egiterakoan gehiegi makurtu beharrik ez izateko edo gure begirada 30° baino gehiago jais-tea saihesteko. Ordenagailuko pantailai ere aplika diezaiekegu hori; gure begien altuera berean edo apur bat beherago egon beharko luke pantailak.
- Kontuan hartu behar dugu lepoaren inklinazioa ere, gure mugikorraren pantaila begiratzerakoan (gaur egun, oso ohikoa da mugimendu hori). Dena den, ez luke 30° baino gehiagokoa izan behar.
- Nerabeen kasuan, garrantzitsua da kontrol handiagoa izatea, ohiko jarrera-akatsak saihesteko, besteak beste, idazten dugun eskuaren aurkako aldera biratzea enborra. Hazteko garaian, deformazioak ekar ditzake horrek, eskoliosia, esaterako. Kontuan hartu behar

dugu ondorio posible horiek beti jarrera desegokian gauden denborarekin daudela lotuta.

Bizkar-zorroei dagokienez, nerabe gehienek eraman ohi dituzten bizkar-zorroek erraz gainditzen dituzte osasun-agintarien gomendioak. Alde batetik, pisua hartu behar dugu kontuan, eta, bestetik, erabilera egokia:

- Pisuari dagokionez, ez du izan behar bizkar-zorroa daraman pertsonaren pisuaren % 10 baino handiagoa, adituaren gomendioei jarraituz. Datu zehatzetan, honela azalduko genuke: DBHn hasiera doan ikasle batek, 40 kg inguru pisatzen duenak, ez luke gainean eraman behar 4 kg baino gehiago pisatzen duen bizkar-zorrorik.
 - Garraiatzen duen pertsonaren bizkarra baino altuera eta zabalera txikiagoak izan behar dute.
 - Euskarri barrubigunak izan behar dituzte, eta, ahal izanez gero, aurreko aldean ere bai, gerrian eta bular inguruan, bizkar-zorroa bizkarrera itsaita joan dadin, etengabe mugitu gabe eta kolpeak eman gabe.
 - Eusteko uhalak ere egokitu egin behar dira, bizkar-zorroaren beheko aldean gerriaren goiko aldean ezartzeko.
 - Gurpildun bizkar-zorroak erabiltzekotan ere, egoki erabili behar dira; ez da behin betiko irtenbidea, pisua bizkarrean eraman beharrean lurtean arrastaka eramaten baitugu, gorputzaren atzetik sarritan, sorbalda behartuz eta bizkarrezurra bihurtuz. Gainera, ikastetxera iristen garenean, hala moduz igo behar izaten ditugu eskailerak, horretarako prestatuta ez dauden bizkar-zorroekin.
- Interesgarria litzateke gure nerabeen bizkarren osasuna zaintzeko aukera emango duten ordezkari irtenbideak planteatzea.
- Gorputz Hezkuntzako eskoletan proposatzen diren jardueri dagokienez, gure eguneroko bizitzan ariketa txertatzeko ohitura sustatzera bidera beharko liratekeela uste dut. Kirola bere horretan kontuan hartzeaz gain, eta Hezkuntza Sailaren curriculumak ezarritako jarraibideak kontuan hartu-

ta, askotariko jarduerak eskaini behar lirateke, eta luzaketak eta jarreraren higiegi eta hezkuntza txertatu behar lirateke, eguneroko errutinetarako. Gorputz Hezkuntzako profesionalak zeregin garrantzitsua dutela uste badut ere, gainerako irakasleek ere prestatu egin behar lukete, eta beren eskoletan landu, zeharkako irakasgai gisa.


Ohiturak aldatzeak inplikazioa, dedikazioa eta jarraitutasuna eskatzen ditu. Eta hala eskatzen die, hain zuzen, inplikaturako estamentu guztiei: erakunde, ikasleei, irakasleei eta familiei. Ohitura berri bat barnatzen denean, ez da jada esfortzurik egin behar ohitura horri eusteko, eta gure haur eta nerabeen osasunak eskertuko digu.

Bibliografia

- PH-E. SOUCHARD: *Stretchig Global Activo. De la perfección muscular a los resultados deportivos*, Paidotribo editoriala, Bartzelona 1996 .
- PH-E. SOUCHARD: *RPG. Principios de la Reeducación Postural Global*, Paidotribo editoriala, Bartzelona 2005.
- LOROÑO, Aitor: *Los 5 Principios del SGA*, Dk.ITG editoriala, Bilbo
- <https://www.centrounan.com/>



ARGITALPENAK



BALIABIDE PEDAGOGIKOEN GIDA

Askoren artean

HIK HASI

Euskal Herriko Baliabide Pedagogikoen Gida berritua argitaratu du Hik Hasik. Bi urtetik behin berritu ohi du gida eta 12.a izan da oraingoa. Heziketa lanerako lagungarri izan daitezkeen proposamenak jasotzen ditu gidak: ikuskizunak, ekintzak, ibilbideak, proposamenak... www.hikhasi.eus webgunean ere kontsultatu daiteke.



MITXI UDAZKENEAN

Anita Bijsterbosch

TTARTTALO

Udazkena da. Zuhaitzean, sagarrak onduak daude, eta lurra hostoz, gaztainez eta ezkurrez estalita dago. Mitxi eta Ilun kanpora joan dira euripean jolastera. Eta neka-neka eginda amaitu dute eguna. Ttarttaloren *Jolasteko eta ikasteko* bildumaren barnean argitaratu den liburu koloretsu hau, 3 urtetik gorako haurrei dago zuzendua.



EZINBESTEKO NANOLIBURUAK

Askoren artean

KALANDRAKA-PAMIELA

Amets handiak gordetzen dituzten liburu ttipiak dira honakoak. Kalandraga eta Pamiela argialetxeek, egungo egileen ipuin ezagunenak kutxa txiki batean bildu dituzte: *Tximeleta-belatriak*, *Antxume bizardunak*, *Barbantxo*, *Hurbil*, *Hiru hartzak*, *Etxeko saguak*, eta *Goikoak eta behekoak*. Zazpi ipuinen kutxatxoak 10 eurotan dago salgai.



ELHUYAR 335

Askoren artean

ELHUYAR

Elhuyar aldizkariaren zenbaki honetan *Nerabezaroaren zientzia* izan da hizpide nagusi eta giza garunaren garapena hartu dute abiapuntu gizakion bizitzako aldi honi begiratzeko. Bestalde, Arantza Aranburu geologoari egindako elkarrizketa dakar zenbaki honek, eta gai gehiago ere bai: laserrak, auzolan digitala, Paleolitoko jostorrazak, 14.600 urteko ogia edota astrofisika, besteak beste.



JAKIN 232

Askoren artean

JAKIN

Txillardegiren pentsamendua eta ekarpena dira Jakin aldizkariaren zenbaki honetako protagonista. Alaitz Aizpuruk egindako artikulua Txillardegiren pentsamenduak eta ekarpenak postmodernitatearekin duen loturaz mintzo zaigu. Bestalde, *Herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen ezinak eta eginak* aztertu ditu Andere Ormazabalak, eta Euskal rapari ere tartea egin zaio.



BAT SOZIOLINGUISTIKA

Askoren artean

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

BAT soziolinguistika aldizkariaren zenbaki berrian, *Bizindar digitala* izan da jorratu duten gai nagusia; alegia, hizkuntzak eremu teknologikoetan duen iraunkortasuna. Horretarako, hainbat azterketa ekarri dituzte hizpidera. Besteak beste, hizkuntzen heriotza digitala aztertzeak hasi, eta euskararen egoera eta ingurune digitalean dituen erronkak azaltzeraino.

PROPOSAMENA

‘Xapoketan’ karta-joko berria

Jolastuz, Euskal Herriko hainbat animalia ezagutzeko aukera irekitzen du

Euskal Herrian bertan pentsatua, kokatua eta egina; ‘Argia’k ‘Xapoketan’ karta-joko berria dakar udazkenarekin batera. Euskal Herriko ekosistemetako 42 animaliarekin bost karta-jokotan aritzeko aukera ematen du. Euskaraz egindako zientifikotasun handiko lana da eta animaliei buruzko informazio eta bitxikeria ugari biltzen dituzte kartek.



Argazkia: Dani Blanco

Euskal Herriko ekosistemak animalia ederrez eta bitxiz beteta daude. Tamaina handikoak zein txikikoak, kolore bizikoak edota ilunak, gautarrak, eguzkia gogoko dutenak, ura maite dutenak, basamortuko harean barneratzen direnak, begi handikoak, arrastaka mugitzen direnak... Forma eta izaera anitzeko animaliaz ingurututa bizi gara. Eta orain, *Argia*-k aurkeztu berri duen *Xapoketan* karta-jokoaren bidez animalia horiek

ezagutzeko aukera dago. Jolastuz ikasten dela esan ohi da, eta karta-joko honek horretarako abagunea ematen du. *Argia*-ko kideekin batera Iñaki Sanz-Azkue biologoa, Eñaut Aiertzagüena marrazkilaria eta Lore Erriondo pedagogoa aritu dira karta-jokoa egiten, eta bere-bereak dituen ezaugarriekin aurkeztu dute.

Hasteko, bioaniztasunaren ikuspegitik belaunaldiz belaunaldi galtzen ari den ezagutza berreskuratzeko tresna bat eskaini nahi izan dute.

Estitxu Eizagirre *Argia*-ko kazetariak dioen moduan, “jada ez gara eremu naturaletan bizi, animaliekin eta naturarekin kontaktuan, jende gehiena hirietan bizi delako. Ondorioz, ezagutza hori galtzen ari gara eta horrek ezezagutza dakar. Eta ezagutzen ez duzun gauza bat ezin duzu zaindu eta maitatu”.

Ikastetxeetan ezagutza hori sustatzen da, “baina egungo globalizazioarekin, daukagun informazio guztia mundukoa da”, dio Eizagi-

rrek. “Etxekoa ez dugu ezagutzen, ez gure ingurunekeo paisaia, ez animaliak, ez hemengo bizitza... eta hutsune hori kanpokoarekin elikatzen dugu etengabe. Jolasak badiugu, baina izan daitezke lasai asko Ameriketara sortuak eta ondoren euskaratutakoak. Eta balio dute”. Baina *Xapoketan*-ek beste balio gehigarri bat du: lur bati lotutako jolasa da, Euskal Herriari lotutako jolasa. Euskal Herriko animaliak agertzen dira kartetan, bakoitza Euskal Herri barruan bizi den ekosisteman kokaturik: Bizkaiko hareatza eta padura, Gipuzkoako goi larreak, Lapurdiko itsasoa eta itsaslabarra, Nafarroa Behereko basoak, Zuberoako landa eremua, Nafarroako basamortua eta Arabako sastrakadi mediterranea. Ekosistema bakoitzeko sei animalia ikusiko ditugu kartetan: ugaztun, anfibio, narrasti, hegazti, arrain eta ornogabe bana. Nafarroan zein bizi diren jakin daiteke, Araban bizi direnak nolakoak diren, bakoitzak zein izen duen eta abar. “Beste inon topatuko ez dugun jolasa da, lurraldetasuna eta nazio ikuspegia dituen, eta horri balio handia ematen diogu”, gehitzen du Eizagirrek.

Hori guztia hizkuntza bati lotuta dago, noski: euskarari. Testuak euskara batuan agertzen dira eta latinezko izen zientifikoa ere badute.


Bada beste ezaugarri bat ere: zientifikotasuna. Marrazkiak oso zehatzak dira eta detaile guztiak aintzat hartuta daude. Eizagirrek kontatzen duenez, “marrazkilariak biologoari irudia pasa ondoren, honek beste biologo batzuei erakusten zien kontrastatzeko eta haiek esaten zuten:

tximeleta hau oso ondo dago eta lorea ere bai, baina justu tximeleta hau ez da lore horren gainean pausatzeko”. Hortaz, irudiak ederrak izateaz gain, errealistak dira, zuzenak dira. Oso lan zientifikoa egin dute eta kartekin dabilen edonork berme hori baduela badaki.

Jolas ugari eskura

Guztira 42 karta txiki eta 6 handi ditu jolasak eta modu ugari daude jolasteko. Egileek bost proposatzen dituzte; alde batetik ohikoak diren familia-jokoa, puzzlea, memoria-jokoa eta *xapo!* arreta- eta azkartasun-jokoa. Eta bestetik, beste berri bat: *Non ote, non ote?* izenekoa. Karta batzuetan animalia batzuen arrastoak edota haien gorputzaren zatiren bat agertzen da. Karta handietako batean “Non ote, non ote?” galderak agertzen dira eta arrasto horiei jarraituz Euskal Herriko animalia ezkutu horiek zein kartatan dauden asmatu behar da.

Jolastuz ikasteko aukera ematen duen joko honetan informazio gehigarri bat ere bada. Karta txikiak Euskal Herrian dauden zazpi ekosisteman oinarritutako familietan banatuta daude, lehen aipatu bezala. Karta handietan, ekosistema bakoitzeko sei animalien deskribapen txiki bat agertzen da, animalia horien bitxikeriak deskribatzen dituen. Horrela, jakin daiteke hareatzen bizi den ur-igel iberiarra udaberri-udako egun eguzkitsuetan, marrakaz aritzen dela kantuan, koroetan. Edo landa eremuko suge berdekoa Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan nahiko arrunta dela, Nafa-



‘Xapoketan’ karta-jokoa

42 karta txiki eta 6 handiz osatutako karta-jokoa da. Txikiak 7 familietan antolatuta daude. Euskal Herrian dauden ekosistemek edo animalien bizitokiek osatzen dituzte 7 familiak.

Nola jolasten da?

Bost joko egin daitezke:

- Puzzleak
- Ohiko familia-jokoa
- Memoria-jokoa
- *Xapo!* arreta- eta azkartasun-jokoa
- Non ote, non ote?


Non eskura daiteke?

azoka.argia.eus webgunean

Prezioa

15 euro

rra iparraldean berezia, Gipuzkoan Irunen eta Oñatin baino ez dela aurkitu eta Bizkaian eta Araban ez duela aipurik. Edo baita ere eskorpioi mediterraneoak atzealdean duen eztena erabili ohi duela harrapakinei pozoia sartzeko. Eta azeriaren dieta aldatu egin dela azken urteetan gizakiak utzitako hondakinak jaten hasi delako.



ATZEKO ATETIK



UDAKO TOPAKETEN 20. URTEAN

AITOR MENDILUZE BERTSOLARIA

Bakarrik eta libre heztea,
erdigunean haurra, gaztea
nola curriculum
estuak ditugun
zer da irakastea?

Bakarrik eta libre uztea
norberaren garapen askea
hezkuntza munduan,
helmugak buruan
norantza ikustea...

Hezkuntzan zergatik,
dihardu Hik Hasik
euskal hezkuntzaren talaiatik?
Topaketak lotuz
aukeraz, aholkuz,
hogeï urte daramatza aukera bat sortuz.

Egiteko asko dugu
horrek elkartu gaitu gu.

Bakarrik eta libre hastea
indartzea, lantzea, haztea,...
pausoak emanez
eta elkarlanez
hobetu araztea...

Bakarrik eta libre piztea
kritikari ontzat iriztea
delako finean
gure ekinean
harago iristea.

Hezkuntzan zergatik,
dihardu Hik Hasik
euskal hezkuntzaren talaiatik?
Topaketak lotuz
aukeraz, aholkuz,
hogeï urte daramatza aukera bat sortuz.

Egiteko asko dugu
horrek elkartu gaitu gu.

Doinua: *Bakarrik eta libre*, Imanol Urbieta



Txikitako beldurrak

hh
hik hasi

Haur Hezkuntzako jardunaldiak
azaroaren 15ean BILBON eta 16an DONOSTIAN

Haur Hezkuntzako hezitzaileentzako jardunaldiak
antolatzen ditu Hik Hasik urtero. Aurtengoak
TXIKITAKO BELDURRAK izenburupean egingo dira

Hizlarien artean izango dira **MYRTHA CHOKLER,**
JON ARANA eta **KATTY HOMAR** psikomotrizistak eta
ALEXANDER BARANDIARAN MUko HUHEZIKo irakaslea

Informazioa eta matrikula www.hikhasi.eus